

Brexita eta Eskoziar independentzia erreferenduma azken hamarkadetan Britainia Handian jazo diren gertakaririk garrantzitsuenak izan dira. Prozesu hauek ulertzeko, 1980. hamarkadatik aurrera sustatu diren egiturazko aldaketak izango dira abiapuntua. Thatcherismoak demokraziaren pribatizatorako eta estatismo autoritariorako joeretan inflexio puntu bat eragin zuen hurrengo urteetako ordena ekonomiko, sozial eta instituzionalaren ezaugarri nagusiak ezarri. Nazioarteko finantza krisiaren eraginez, Britainiar sistemaren kontraesanak areagotu eta krisia sakondu egin zen. Gure aburuz, brexita eta eskoziar independentzia prozesua britainiar krisi organikoaren ondorio eta sustatzaile dira aldi berean eta bere sakoneko jatorria 80. hamarkadetakoa aldaketetan kokatu behar dira.

Giltza-Hitzak: Brexita. Eskozia. Demokraziaren Pribatizazioa. Burujabetza. Populismoa.

Los sucesos más importantes que han tenido lugar en el Reino Unido en las últimas décadas han sido el Brexit y el referéndum para decidir la independencia de Escocia. El punto de partida para comprender dicho proceso se sitúa en los cambios estructurales promovidos a partir de la década de los ochenta del siglo anterior: el thatcherismo marcó un punto de inflexión en las tendencias de privatización de la democracia y del estatismo autoritario, estableciendo las principales características del orden económico, social e institucional de los años siguientes. Más adelante, la crisis financiera internacional aumentó las contradicciones del sistema británico y contribuyó a la profundización de su crisis. Desde nuestro punto de vista, el Brexit y el proceso de independencia de Escocia son, al mismo tiempo, consecuencia y causa de la crisis orgánica británica, cuyo origen profundo lo encontramos en los cambios realizados en la década de los ochenta.

Palabras Clave: Brexit. Escocia. Privatización de la democracia. Soberanía. Populismo.

Les événements les plus importants qui ont eu lieu au Royaume-Uni au cours des dernières décennies sont le Brexit et le référendum pour décider de l'indépendance de l'Écosse. Avec, comme point de départ pour comprendre ce processus, les changements structurels impulsés à partir des années 1980 par le thatchérisme, qui marqua un tournant dans les tendances de privatisation de la démocratie et de l'étatisme autoritaire, en établissant les principales caractéristiques de l'ordre économique, social et institutionnel des années postérieures. Plus tard, la crise financière internationale vient accentuer les contradictions du système britannique et contribue à aggraver sa crise. De notre point de vue, le Brexit et le processus d'indépendance de l'Écosse sont à la fois la conséquence et la cause de la crise organique britannique, dont l'origine profonde remonte aux changements opérés dans les années 1980.

Mots-Clés : Brexit. Écosse. Privatisation de la démocratie. Souveraineté. Populisme.

Britainiar krisi organikoa: Brexita, Eskoziar independentzia eta demokraziaren pribatizazioa

(British organic crisis: Brexit,
Scottish independence and
privatisation of democracy)

Azkune, Jon

Euskal Herriko Unibertsitatea. Politika eta Administrazio
Zientziako Departamendua. Bizkaiko kanpusa. Sarriena
auzoa, z/g 48940 – Leioa
jon.azkune@ehu.eus

1. Sarrera

1990. urtetik aurrera Britainia Handia eta bere batasunaren krisiaren inguruko literatura ugartu da. Dinamika horren aurrekaria Tom Nairnek 70. hamarkadaren amaieran idatzitako “The Break up of Britain” (1977) lana jo dezakegu, eta harezkerok ugariak izan dira auzia ikuspegi ezberdinetatik jorratu dutenak. Askok identitate britainiarraren eraikuntzan eta bere esanahiaren eraldaketan jartzen dute arreta (Bryant, 2006; Colley, 2003). Beste hainbatek, Ingalaterraren nazio sentimenduaren berpizkundearekin lotzen dute krisia (Colls, 2002) eta badira Europaren eragina azpimarratzen dutenak (Redwood, 1999). Hala ere, azken urteetan bi fenomenok baldintzatu dute bai eztabaida politikoa, bai analisi akademikoa: Eskoziako independentzia erreferenduma eta Brexit-a.

Orokorrean Brexita eskuin populistaren erretorikaren arrakastarekin lotzen den bitartean, Eskoziar independentismoa balio aurrerakoiekin erlazionatzeko joera dago. Hala ere, komenigarria al da *a priori* hain ezberdinak diruditen fenomenoak analisi berean elkartzea? Orain arte euren arteko loturarik egin ez den arren¹ ba al dago bien arteko harremanik? Ikuspegi kritiko batetik ezinbestekoa da gatazken erroa aztertuz banaturik dauden prozesuak elkartu eta irudi osoago bat eskaintzea (Cox, 1981:128). Hori dela eta, gure kasuan arreta nagusia Brexita eta Eskoziako independentismoan jarri ordez, bi prozesu horiek eragin duten sakoneko eraldaketetan jarriko dugu. Zentzu horretan, prozesu zabalago horren baitan kokatzen ditugu Nicos Poulantzasen aburuz Mendebaldeko Estatuak *estatismo autoritario-rako* bizi zuten joera (1978) eta Jule Goikoetxeak, *demokraziaren pribatizazio* moduan definitu duen fenomeno (2017).

Estatismo autoritarioa, Nicos Poulantzas teoriarari marxistak jadanik 70. hamarkadan aurreikusitako joera da. Bere ezaugarrien artean hurrengoak azpimarratu daitezke: botere exekutiboa botere legegilea baino indartsuagoa bihurtzea,

1. Brexita eta balizko bigarren independentzia erreferendumaren arteko loturetara mugatu dira azterketak.

botere exekutiboa, legegilea eta judizialaren fusioa, alderdi politikoak erabaki ofizialen transmisio kate soil bihurtzea eta proiektu hegemonikoak proposatzeko ahalmena galtzea edota estatuaren segurtasun atalen indartzea (Poulantzas, 1978: 247-303). Azken finean, herritarren adostasun aktiboaren bidez hegemonia erdiesteko tresnak ahultzen direnean (ongizate zerbitzuak adibidez) estatuaren beste atal autoritarioagoak indartzea litzateke ondorioa. 70. hamarkadan hasi zen joera hori azken urteetan areagotu besterik ez da egin.

Demokraziaren pribatizazioari dagokionez Goikoetxearen hitzak zuzenean jasoko ditugu:

“Demokraziaren pribatizazioak oximoron bat eman dezake; izan ere, demokraziaren bitartez esparru publikoa zabaltzen da, eta pribatizazioak, berriz, kontrako norabidean jotzen du, eta esku pribatuetan jartzen ditu eskubideak, erabakiak hartzeko ahalmena eta instituzio publikoak, bai eta ondasun kolektiboa, jakintza, osasungintza, hezkuntza, baliabide naturalak eta autoritate politikoak ere” (Goikoetxea, 2017:12).

“Demokraziaren pribatizazioaren ezaugarri da estatuari zegozkion ahalmenak eta gaitasun publiko-politikoak (hala nola erabakiak hartzea, legeak egitea eta ezartzea, horiek ebaluatzea, berriro egokitzea, ondasunak ekoiztea eta banatzea) esku pribatuetara igarotzea (enpresak, adituak, lobbia, interes-taldeak, eragile exekutiboak) (ibidem:37).

Herrialde askotan, estatismo autoritariorako eta demokraziaren pribatizatorako joerarekin batera nazio historikoak era demokratikoan birstortzea ahalbidetu duten Estatu egituren deszentralizazioa sustatu zen. Prozesuak era banatuan ulertu ordez, elkarreraginean eta bata bestearen baitan etengabeko tentsioan ulertu behar direla uste dugu. Autoritate pribatuen ahalduak burujabetza galera bat eta desdemokratizazio prozesu bat eragin du, eta, horri erantzunez, burujabetza eskaerak areagotu dira. Bestetik, estatu egituren deszentralizazioaren ondorioz, borroka nazionalista garaikideen gakoa, demagogia, naziogintza eta estatugintza prozesu ezberdinen arteko talkan datza. Hau da, kultura bereiztu baten babesa baino, demokratizazio prozesu ezberdinen ondorioz sortzen diren autoritate eta legitimitate ezberdinen arteko lehia da gakoa. Joera hauek Britainiar kasuan bi adierazle argi izan dituzte: Brexita eta eskoziar independentzia prozesua. Aurrerako ikusiko dugun moduan, biak dira aldi berean, Britainiar estatuaren krisi organikoaren ondorio eta sustatzaile.

Hori dela eta, Britainiar estatuaren baitan jazotako aldaketekin batera hauek Eskozian izan duten eragina aztertuko dugu. Zehazki, elkarreraginean ulertzen ditugun hiru dinamika izango ditugu oinarri:

1. Thatcherismoa, momentu egituratzaile gisa (Jessop, 1982:253), hurrengo hamarkadetako ordena ekonomiko, sozial eta instituzionalaren ezaugarri nagusiak ezarri zituela uste dugu. Zehatzago, **demokraziaren pribatizatorako prozesuan ezinbesteko inflexio puntua da**. Honen oinarrian dagoen metaketa estrategia, estatu proiektu neoliberal eta britainiartasunaren artikulazio hegemoniko berria aztertuko ditugu.
2. Lurralde antolaketari dagokionez, Eskoziako kasuan jarriko dugu arreta. Estatu fordistaren garaian, eskoziar estatu egituren eraginez demokratizazio prozesu mugatu bat garatu zela uste dugu. Thatcherismoak sustatutako demokraziaren pribatizazioaren ondorioz, bere izaera subaltermoa

areagotu, eta horri aurre egin nahi zioten burujabetza eskaerak piztu zirela ikusiko dugu. Britainia Handia eta Eskoziaren artean gaur egunera arte iraun duen hausturarekin batera, artikulazio hegemoniko berriaren garrantzia azpimarratuko dugu. Devolution prozesua tentsio horien ondorioa litzateke.

3. Azkenik, gaur egungo Britainiar estatuaren *krisi organikoaren* dimentsio garrantzitsuenak aztertuko ditugu. Gure aburuz, Thatcherismoaren garaian ezarritako momentu egituratzailearen kontraesan eta tentsioen kontentsazioaren adierazlea da. Brexit-a eta Eskoziar independentzia prozesua, krisi organiko horren ondorio eta sustatzaile dira aldi berean.

2. Estatismo autoritarioa, demokraziaren pribatizazioa eta thatcherismoa

Thatcherismoa, 70. hamarkadan, Britainiar Estatuaren krisi organikoaren baitan, ulertu beharreko fenomeno politikoa da. Honen inguruan irakurketa anitzak egin diren arren, ikuspegi kritikotik hurbil dauden bi korronteek garatu zuten *Hall-Jessop* eztabaidaren ondorioak jasoko ditugu. Stuart Hall eta *Cultural Studies* taldeak Thatcherismoaren irakurketa diskurtsibo eta ideologikorako joera izan zuen bitartean (1979; 1987; 1988), Jessop buru zuen taldeak ekonomia politikoa eta estatuaren teoriaren ekarpenak baliatu zituzten bere azterketarako (Jessop et al. 1985). Gallasen aburuz, biek ala biek ekarpen bateragarriak egin zituzten neurrian, euren arteko sintesiak eskaintzen digu argazkirik aberatsena (2016:21). Lehenik eta behin, azken hauen ekarpena jasoko dugu ostean ikuspegi diskurtsiboena txertatzeko.

Hasteko, Britainia Handian *Flawed Fordism* moduan ezagutu den ereduaren nagusitasuna aipatu beharra dago (Jessop, 1989:270). Horren ondorioz, masa produkzioan, soldata altuetan eta masa kontsumoan oinarrituriko zirkulu bertuoso fordista gabezia sakonak zituen beste herriein alderatuta (Jessop, 1989:270). Produktibitatea herri kapitalista aberatsetan baino gutxiago hazi zen, soldataren erregulazio fordista akastuna zen eta masa kontsumoa eskaeraren kudeaketaren bidez eta soldata sozialaren bidez sustatu ziren (idem.). Hori dela eta, metaketa estrategia Keynesiarra eta esku hartzean oinarritutako Estatu proiektua sustatu arren, ez zen gai izan XIX. mende amaieratik lehiakortasun arazoak zituen Britainiar oinarri industrial zaharberitzeko, ezta estrategia korporatibista egokia aurrera eramateko (Gallas, 2016:76).

Gerra osteko adostasunak enplegu betea eta ongizate unibertsala sustatzeaz gain, nazioarteko egoera lagungarriak gabezia hauen ondorioak estaltzen lagundu zuen (Jessop, 1989:270). Hala ere, 1960. hamarkadan jadanik arazoak nabariak ziren. Epe luzeko ondorioei erreparatuta, produktibitate eskasak, inflazioak eta desindustrializazio progresiborako joerak, ordainketa balantzan etengabeko arazoak sortu zituen (idem). Petrolioaren krisiak gabezia hauen eragina areagotu zuen eta ostean ikusiko dugun moduan, Thatcherismoak sustatu zituen politika deflazionistek desindustrializazio prozesua sakondu eta inportazioen sarrera sustatu zuen (idem).

Gabeziak gabezi, menderakuntza eta ahalduntzerako ezinbestekoak diren mekanismo disziplinario eta biopolitikoaren hedapen eta publikazioa handia bizi izan zuen garaia izan zen (Goikoetxea, 2017:83-88). 1942an aurkeztu zen Beveridge txostena jarraituz, gerra osteko ongizatearen ardatz ziren *National Health System* eta *National Insurance* sortu ziren (beste neurrien artean). Hasieran desmerkantilizazio maila altua sustatu arren, hurrengo urteetan ez zen sakondu, beraz, eredu sozialdemokratatik aldendu eta Sping Andersen banaketaren arabera eredu liberalera jo zen (McEwen, 2006:57). Desfamiliarizazio² maila bestalde baxua zen eta sustatzen ziren politika gehienak ideologia patriarkala oso errotuta zuten (Paterson, 1994:106). Hala ere, Nicola McEwenek egindako azterketak era argian lotzen ditu ondorengo fenomenoak: ongizatearen garapena, Britainiar nazio sentimenduaren hazkundea, erakunde publiko britainiarraren zilegitasuna eta nazionalismo periferikoen ahultasuna (2006). Ostean ikusiko dugun moduan, 80. hamarkadatik aurrera kontrako norabidea hartu ostean kontrako ondorioak eragin zituzten.

Esandakoak esanda, krisi organikoaren elementuak nabariak ziren (Gramsci, 1999:450-451). Azken hau kontzeptu abstraktu bat den neurrian, berau plano zehatzago batean operazionalizatzeko Bob Jessopek garaturiko kategoriak erabiliho ditugu. Honek, Estatu eta bere krisiaren ezaugarriak aztertzeko, 6 dimentsio ezberdintzen ditu: hiru formal eta hiru sustantibo. Lehenengoak, **ordezkaritzari** egiten dio erreferentzia, hau da, talde sozial ezberdinek euren interesak ordezkatzeko dituzten tresnei. Besteak beste, ordezkaritza bide ohikoenak parlamentarismoa, korporatibismoa edo klientelismoa izan dira (Jessop, 2015:62). Artikulazio bideei dagokionez, **estatuaren barne egituraketari**³ egiten die erreferentzia: legegile eta exekutiboaren arteko harremanari, ministerio ezberdinen arteko desorekari edota lurraldea antolatzeko egon daitezkeen deszentralizazio prozesuei (idem). **Interbentzio mekanismoei** buruz hitz egitean aldiz, Estatutik kanpo dauden baliabideen, aktibitateen eta pertsonen arteko konexioengan eragiteko Estatu gaitasunari buruz ari gara (idem). Baliabide publikoak ugariak direnean interbentzio mekanismoak sendoak izango dira, krisi testuinguruetan aldiz, mekanismoak ahuldu eta gaitasunen krisiari⁴ buruz hitz egingo dugu. Dimentsio sustantiboen baitan, **Estatuaren oinarri soziala** azpimarratu behar da lehenik eta behin. Plano ekonomiko, sozial eta politikoan erregimen baten egonkortasuna mantentzeko funtsezkoak diren aktoreei egiten die erreferentzia. **Estatu proiektuak** bestalde, politika ezberdinen oinarri izango diren irudikari politiko, proiektu eta praktikak barnebiltzen ditu. Askotan, estatu egitura klasikoetatik urrun dauden intelektual organikoek, masa hedabideek edota kultura eragileek rol berezia jokatzten dute Estatu proiektu ezberdinen sorreran. Azkenik, **proiektu hegemonikoaren** bidez, estatu proiektua-

2. Familiarizazioaren kontzeptuak, emakumeek gizonenganako (haien soldatekiko, eskubideekiko edo kapitalekiko) duten dependentzia neurtzen du, gizarte patriarkalak emakumeei derrigorrez ezarritako dependentzia hori (Goikoetxea, 2019:13).

3. Azken hamarkadetakoa joera aztertuz, exekutiboa legegilearen kaltetan indartu da, ekonomia ministerioak indartu egin dira eta deszentralizazio prozesuak orokortu direla esan genezake.

4. Jessopek Habermasen eredu jarraituz "Arrazionaltasun krisiari" buruz hitz egiten du (2015:63).

ren aldeko babes zabalak lortuko duen ikuspegi nazional-herritarra eratuko da. Honi esker, banaturik daude sektore sozial ezberdinen babesera erakiko da interes orokorraren izenean. Azken hamarkadetan, logika populista izan da proiektu hegemoniko ezberdinak artikulatzeko bide arrakastatsuen (Laclau, 2005). Krisi egoeretan guztien arteko lotura dagoen arren, dimentsio bakoitzak bere ezaugarri propioak mantenduko ditu. Aztertzerako orduan horrela definituko ditugu: ordezkari krisia, gaitasunen krisia, zilegitasun krisia, lurralde eta barneratze instituzionalaren krisia eta hegemonia krisia.

Aipaturiko kontzeptuen sintesia hurrengo taulan ikus daiteke:

1. irudia. Estatuaren eta bere krisi dimentsioak

Dimension	Definition	Significance	Crisis aspects
Three formal dimensions			
Models of representation	These five social forces access to state apparatus and power	Unequal access to state Unequal capacity to shape, make, and implement decisions	Crisis of representation
Modes of articulation	Institutional architecture of levels and branches of state	Unequal capacity to shape, make, and implement decisions	Crisis of institutional integration
Modes of intervention	Modes of intervention inside state and beyond it	Different sites and mechanisms of intervention	Rationality crisis
Three substantive dimensions			
Social basis of state	Institutionalised social compromise	Uneven distribution of material and symbolic concessions to 'population' to secure support for state, state projects, specific policy sets, and hegemonic visions	Crisis of power bloc Disaffection with parties and state
State project	Secures apparatus unity of state and its capacity to act	Overcomes improbability of unified state system by giving orientation to state agencies and agents	Legitimacy crisis
Hegemonic vision	Defines nature and purposes of state for wider social formation	Provides external legitimacy for state, defined in terms of the 'common good', general will' etc.	Crisis of hegemony

Iturria: Jessop, 2015

Britainiar kasura aplikatuta, hasteko, Estatuaren **ordezkari krisiak** izaera bikoitza zuela azpimarratu beharra dago: parlamentarismoaren krisiaz gain langilegoa eta enpresariak ordezkatzeko xedea zuen eredu korporatibista ere krisian zegoen (Jessop et.al. 1984:45). Parte hartze demokratikorako bide nagusien ahulezia horrek, Estatuaren **zilegitasun krisia** areagotzea besterik ez zuen eragin

(idem.). **Barneratze instituzionalaren krisia** estatuak politika koherenteak artikulatzeko zuen gaitasun faltak eragin zuen neurri handi batean (Jessop, 1989:271). Horretaz gain, Irlandako gatazkaz harago, lehen aldiz batasun nazionala kolokan jar zezakeen Eskoziako independentismoaren loraldia ere 1967-1979 testuinguruan eman zen (Hassan, 2009:1).

Botere blokearen krisia ere nabaria zen. Kapital industrialak zituen egiturazko arazoez gain, sustatu ziren erreformek finantza kapitalak aurretiaz merkatu hierarkian zuen nagusitasuna areagotu zuen. *City-aren* epe motzeko interesak hobesteaz gain, luzera begira honek **kapital industrialaren berreskurapenean zuen interes faltak, desindustrializazioa prozesuan eragin zuen** (Gallas, 2016:76-77). Bestalde, gerra osteko sistemaren oinarri ziren Alderdi Laborista eta Alderdi Kontserbadorearen sektore moderatu eta aurrerakoenak ere krisian zeuden (Hall, 1979:16). Laboristek zailtasunak zituzten aldi berean krisiaren kudeaketa aurrera eramane behar zuen gobernu alderdia eta langile klasearen interesak defendatzen dituen alderdia izateko (idem.). Bestetik, Kontserbadoreen buru zen Edward Heathen sozialismoa eta estatu kolektibismoa gogor kritikatzeko zuen diskurtsoaren bidez, Margaret Thatcherren eskuin erradikalak Toryen kongresua irabazi zuen 1975ean (idem.).

Estatuaren interbentzio mekanismoak ere krisiaren ondorioz mugaturik geratu ziren. Erakunde korporatibisten gabeziaren eraginez, fordismoak galdatzen zuen kapital eta lanaren arteko koordinazioa oso akastuna zen eta ez zegoen soldata eta etekinen arteko orekarik (Gallas, 2016:76). Hazkunde mugatuak eta soldaten igoerak etekinen murrizketa eragin zuen. Honi aurre egiteko prezioak igo zituzten inflazioa sustatuz eta soldaten igoera erreala ezer ez zuten utziz. Horrek, maila makroekonomikoan geldiunea eragin zuen. Horretaz gain, gobernu laboristak enplegu osoko politikak alde batera utzi zituen eta langabezia hasi zen. Testuinguru horietan ohikoa den moduan, krisiari aurre egiteko baliabideak gero eta urriagoak ziren bitartean krisiaren ondorioei aurre egiteko beharrak handitu ziren (gastu sozialaren bidez), krisi fisko finantzaria eraginez (Jessop, 2015:71).

Baldintza horietan 70. hamarkadan sistema politikoarekiko sumina handitzearekin batera klase borroka areagotu zen. 1978-1979 artean **Winter of Discontent**⁵ moduan ezagutzen dena izan zen inflexio puntua. Krisi sakon horren adierazle izateaz gain, Estatu Britainiarren eraldaketarako interbentzio estrategikoaren unea ere izan zen, Thatcherismoaren hasieraren inflexio puntua (Hay, 1996: 253). Krisi horren eraikuntza diskurtsiboan lortutako arrakasta ezinbestekoa izan zen Thatcherismoaren hegemonia berria eta **Estatu proiektu neoliberal** sustatzeko (Ibidem: 255). Horren ostean, 1979ko maiatzean Hauteskunde Orokorak irabazi zituen garai berri bati hasiera emanez.

Zer da Thatcherismoa? Zein izan zen Britainiar politikan izan zuen eragina? Zein da zehazki Eskoziako burujabetza eskaeretan izan zuen eragina? Galdera sakon hauen inguruan lan ugari garatu dira beraz aipu batzuk besterik ez ditugu egingo. Bere definiziorik orokorrean, Thatcherismoa lidergo karismatikoa

5. 1978-1979 urteen arteko neguan, Laboristak agintean zeuden bitartean, gobernuaren aurkako greba eta mobilizazio sozial ugari egon zen. Laboristen neurrien aurkako mobilizazio oldaraldi horri "Winter of Discontent" deitu ohi zaio Britainia Handian.

baten bidez gidaturiko *establishment-aren* berrantolaketa bat izan zen (Gramsci, 1999:451; Jessop, 2016:133). Aurreko hamarkadetan ez bezala, langile erresistentzia ez zen nahikoa izan beraz 1940tik botere blokeak burutu zuen lehen ofentsiba arrakastatsua izan zen (Gallas, 2016:62).

Koiuntura aldaketaz harago, testuinguru horretan gaur egunera arte indarrean dagoen formazio sozialaren ezaugarriak baldintzatu duen **momentu estrukturala** ezarri zen (Jessop, 1982:253). Bere definiziorik orokorrean, *neoliberalismo Britainiarra* era erlatiboki koherentean euren artean indartzen diren politika multzoa litzateke (Jessop, 2016: 135). Zehazki, *neoliberal regime of condensation* moduan ezagutzen denari buruz ari gara (Gallas, 2016:63). Horretaz gain, mundu mailan demokraziaren pribatizazioari eta desdemokratizazioari atek zabaldu zizkion garaiaren bultzatzaile garrantzitsua da (Goikoetxea, 2017).

Thatcherismoak, metaketa estrategia eta estatu proiektu neoliberalaren artikulazio berritzaile bat egin zuen. Alde batetik, politika monetarista eta fiskalei lehenetasuna eman zieten politika industrial alboratuz (Gallas, 2016:63). Horren bidez, botere blokearen baitan jadanik finantza sektoreak zuen gailentasuna areagotu zen frakzio industrial are gehiago ahulduz (idem.). Bestetik, merkatu librearen aldeko hautuaren ondorioz, Britainiar lehiakortasuna pribatizazioen eta finantzen liberalizazioaren bidez sustatzea zuen xede. Honen lehengai ideologikoa, elite txiki baten aurka zuzentzen zen *herri kapitalismoaren*⁶ eta *jabetza demokraziaren* defentsa zen. Jabetza pribatua eta lehiakortasuna jendartearen eremu guztietatik hedatzea da bere xedea, beraz, gubernamentalitate neoliberalaren printzipioekin bete betean lotzen da (Lemke, 2002; Foucault, 2008). Etxebizitzaren jabetza pribatuaren sustapena eta pribatizatzen ziren sektoreen akzioen erosketa⁷ dira herri kapitalismo horren sinbolo garrantzitsuenak.

Era laburrean hauek lirateke politika aipagarrienak⁸:

- Estatuaren jabetzakoak ziren aktiboen pribatizazioa, sektore estrategikoen pribatizazioak garrantzia berezia izanik.
- Desregulazioa eta ekoizpen merkatuan lehiaren areagotzea. Gasa, elektrizitatea eta komunikabideak dira honen adibide esanguratsuenak. Udal- en zerbitzu publikoak eremu pribatuari zabaltzea ere dinamika honen baitan leudeke.
- Finantza industriaren desregulazioa.
- Sindikatuen boterearen murrizketa.
- Zerga egituraren eraldaketa erregresiboa errentaren gaineko zergak jaitziz eta BEZ eta Poll Tax zergak igoz.

6. Thatcherrek zuzenean adierazi zuen moduan, herri kapitalismoa gehiengo sozialak ahalduntzeko bidea litzateke: "Popular capitalism is nothing less than a crusade to enfranchise the many in the economic life of the nation." Ikus hurrengo lotura: <https://www.youtube.com/watch?v=CjSmaYJvTqI> (azken bisita 2019/09/10). Bere proiektuaren artikulazio diskurtsiboaren gakoak era argian azter daitezke 1986an Alderdi Kontserbadorearen Konferentzian emandako diskurtsioan: <https://www.margareththatcher.org/document/106498> (azken bisita 2019/09/10).

7. "A society where owning shares is as common as having a car".

8. Honen azterketa sakonagorako ikus: Gallas, 2016.

Orokorrean administrazio publikoaren pribatizazioan sakontzeak, gobernagarritasunaren krisia areagotu zuen honi aurre egiteko neurri errepresiboen areagotzea eraginez. Prozesu horrek **estatismo autoritariorako joera** indartu zuen edo Stuart Hallen lana jarraituz, **autoritarismo populista** indartzeko joera (Poulantzas, 1978). Hallek berak onartzen duen moduan, kontzeptu hau Poulantzasen lana irakurri ostean garatu zuen, beraz jada azaldu dugun estatismo autoritarioaren bertso Britainiarraren aurrean geundeke (Hall, 1988: 151). Politika demokratikoan etengabe agertzen den adostasuna eta hertsapenaren arteko tentsioan **hertsapena hobesteagatik definitu zuen autoritario** (idem). Poliziaren garrantzia handitu, kartzela sistema indartu eta zigor zuzenbidea gogortu zen (Gallas, 2016: 64).

Hertsapenez gain, **boterearen kontzentrazioa eta zentralizazioa** indartu ziren parlamentua eta alderdi politikoen eragina murriztuz (Jessop et al., 1985:47). Kabinetearen, administrazio zentralaren eta Lehen Ministroaren botereak indartu zituzten. Horren bidez, sistema presidentzialistaren ezaugarriak nagusitzen hasi ziren: gobernuaren zilegitasuna Lehen Ministroaren ospean eta herriari zuzenean hitz egiteko gaitasunean oinarritzen hasi zen (idem.). Gobernuaren eta estatuaren goi administrazioaren autonomia areagotzearekin batera **politika publikoen proposamen eta egikaritza (estrategia ekonomikoa barne) erregulazio demokratikotik aldenduz** joan ziren (idem.). Honen ondorioz, estatuaren antolakuntza formaletik kanpo publikoki kontuak eman behar ez dituzten sareen indartze bat egon zen (Cabinet Officen sarea izanik adibide argiena) (Jessop, 1990:187).

Horretaz gain, **administrazio politiko lokalen eskumenak murriztu** zituzten era honetan laborismoaren botere gune garrantzitsuenak ahulduz eta eremu horietan politika neoliberalen ezarpena ahalbidetuz. Botere lokalak, zerbitzuen hornitzaile izateaz gain erosle bihurtu ziren eta erabakiak hartzeko ahalmena zuzendari exekutiboan eta goi mailako administrarien kontrolpean geratu zen (Fraser, 2013:17). Finantzaketa, etxebizitza politikak, hezkuntza sistema, garraioak edota defentsa zibila bezalako arloak botere zentralaren zuzendaritzapean geratu ziren. Horren ondorioz, Gary Fraserrek era argian dioen moduan “power shifted from elected politicians to the private sector” (2013:16).

Aipatutako eraldaketan bidez, botere lokalak, alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialak ahuldu eta botere exekutibo eta teknokratikoak indartu zituzten, demokrazia pribatizatuz eta desdemokratizazioa ahalbidetuz (Goikoetxea, 2017:20).

Maniobra gerra⁹ horren arrakasta, 70. hamarkadan maila ideologikoa eskuin erradikalak zuzendutako posizio gerrari hertsiki loturik dago (Jessop et al. 1985:41). Lehenik eta behin, kontuan hartu behar dugu, **Bigarren Mundu Gerra osteko Britainiartasuna** gaur egungo perspektibatik adostasun sozialdemokrata moduan sailkatu daitekeen arren, bere ezarpenean lidergoa kontserbadoreen sektore aurrerakoiek izan zutela (Jessop et al. 1985:40). Hala ere, nazio bakarraren (one nation strategy) ideia oron ondorioz jendartearen gehiengora heltzeko xedea zuen hegemonia hedakorra zen nagusi maila sinboliko zein materialean ongizatea

9. Maniobra Gerrak, eraso zuzena suposatzen duen bitartean, posizio gerrak pixkanaka estrategikoak diren posizioak (ideologikoak, estatuaren egituren baitakoak etab.) irabaztean datza.

sustatzu (Jessop, 1990: 211). Hori dela eta, sektore oso zabalek ongizatearen oinarrien inguruko adostasunak konpartitzen zituzten. Hurrengo litzateke bere adierazpen grafikoa:

2. irudia. Bigarren Mundu Gerra osteko Britainiartasuna



Iturria: Egileak egina, 2019

Thatcherrek gidatutako proiektu hegemonikoak, britainiar gizartean muga politiko berri bat ezartzeko gaitasuna izan zuen II. Mundu Gerra ostetik indarrean zegoen *one nation* proiektu hegemoniko horrekin bukatuz -70. hamarkadan krisian sartu arren indarra mantendu zuena- (Jessop, 1990:183). Horren bidez, britainiar nazionalismoa eta aurreko hamarkadetan zentzu komunekoak ziren printzipio sozialdemokratikak era estrategikoan berrartikulatu zituzten proiektu alternatibo bat osatuz. Zehazki, *nazioa eta herria, klasea eta sindikatuen* aurka polarizatzearekin batera, ekonomizismo neoliberalaren kontzeptu abstraktuak masiboki kontsumigarria zen filosofia berri batean itzuli eta hedatu zuten **artikulazio populista** eraginkorra burutuz (Hall, 1979:17; Laclau, 2005).

Zentzu horretan, proiektu thatcheriarrak bi ideia eta teoria uztartu zituen: **ekonomizismo liberala** (herri kapitalismoa, individualismo lehiakorra, monetarismoa etab.) eta kontserbadurismo **organikoaren filosofia zaharrak** (nazioa, familia, autoritatea etab.) (idem.). Bi ideia nagusi hauetan oinarrituta muga politiko bat eraiki zen hainbat elementu kanpoaldean utziz. Antikolektibismoaren bidez proiektu thatcheriarrak ekibalentzia kate bat osatu zuen. Kolektibismoak beste hainbat ideien artean **sozialismoa, estatalismoa, adostasun politika, ez eraginkorra den korporatibismoa** edota **botere gehiegi duten sindikatuak** ordezkatu zuen. Sozialdemokraziaren krisia eta bai britainiar ekonomiaren zein nazio britainiarraren gainbehera luzea ideia eta praktika hauekin eta hauen ordezkari ziren erakundekin lotu ziren.


Bestaldetik, **thatcherismoa** eta **antikolektibismoaren diskurtsoa** egoera horri aurre egiteko alternatiba bakar moduan agertu ziren. Honen bidez,

thatcherismoa norbanakoaren askatasun eta ekimenarekin lotu zen sindikatuen eta ku-deatzaile publikoen botere ez eraginkorraren aurrean; herri eta estatu britainiarraren berritze politiko eta moralaren ordezkari bueltarik gabeko gainbeheraren aurrean; legea eta ordenaren berrezarpena, lidergo argia eta estatu indartsua gizartean emandako autoritate galeraren aurrean, adostasun politikak sorturiko desordenaren aurrean eta pisutsuegia eta ahulegia den ongizate estatuaren aurrean (Hall, 1979; 1988).

Hallen ikuspegitik thatcherismoak arrakasta izan zuen sozialdemokraziaren krisia azaltzeko gaitasuna izateaz gain eredu alternatibo bat eskaintzeko ahalmena izan zuelako. Herria subjektu politiko populista bihurtzeko saiakerak arrakasta izan zuen garai hartan jendearen arazoez arduratzeko gaitasuna izan zuelako. Alderdi Laboristak kapitalismoa Estatuaren bidez eta negoziazio korporatiboaren bidez erreformatzeko saiakerak izandako porrotaren testuinguruan (1978-1979 artean bizitako *winter of discontent* honen adierazle dira), Thatcherren proiektuak sistema zaharraren aurka nagusi zen sumina baliatu eta alternatiba erradikal bat eskaini zuen. Laborismoa *ustelduta zegoen estatuaren aparatu burokratikoarekin* identifikaturik geratu zen bitartean, Thatcher honen kanpoaldean kokatu zen, herriarekin batera *duintasuna eta askatasuna* ordezkatzuz.

Bi nazioen estrategiaren ondorioz, two nations strategy, kontzesio materialak mugatu eta estrategikoki adierazgarriak ziren sektoreen babesaren mobilizazioa sustatu zuten (Jessop, 1990:211). Era dikotomikoan ezarritako mugaren bidez, diskurtsiboki erlazio antagonikoak eraiki ziren batzuk barneratuz eta beste batzuk kanporatuz. Esan bezala, Thatcherismoak, garrantzia handia duten adierazle hegemonia bereganatu zuen: herria, nazioa, askatasuna, individualismoa etab.) aldi berean aurreko ordena sozialean garrantzia handia izan zuten beste hainbat adierazle bazterrean utziz (sozialismoa, kolektibismoa, Estatu etab.). Hurrengoa litzateke Thatcherismoaren *Britainiartasun neoliberal/kontserbadorearen* adierazpen grafikoa:

3. irudia. Thatcherismoaren Britainiartasun neoliberal/kontserbadorea



Iturria: Egileak egina, 2019

Zeintzuk dira bere eraginak? Gallasen aburuz, *maila ideologiko eta politikoan klase proiektu moduan Thatcherismoak lortutako arrakastaren* ondorioz, 1940. hamarkadatik kapitalak ezagutzen ez zuen nagusitasuna lortu zuen (2016:62). Sindikalismo militanteenaren aurkako lehia aurreko hamarkadetan ezinezkoa izan ziren garaipenez gain¹⁰, sindikatuen legea aldatu, etxebizitzaren jabetza pribatua era masiboan sustatu eta finantza sektorearen bultzada lirateke arrakasta horren adierazlerik argienak (ibidem:276). *Epe ertainera kapitalaren metaketa ziurtatzeari dagokionez kale egin zuela* nabartzen du bestalde. Hauek lirateke horren adibide argienak: burtsa-merkatuak 1987an eztanda egin zuen; 1980. hamarkadako hazkundera (Lawson Boom moduan ezaguna dena) burbuila espekulatibo baten ondorioa zela argi geratu zen 90. hamarkada hasierako ez-tandaren ondorioz; hurrengo hamar urteetan 2 atzeraldi ekonomiko egon ziren.

Epe luzeko eraginei dagokionez, egiturazko arazoaren ondorio den Britainiar Krisi Organikoa (Brexita barne) litzateke politika neoliberalen porroten ondorioa. Demokraziaren pribatizazioan sakonduz herritarrak botere behar zituzten mekanismoak autoritate pribatuak ahaldundu dituzte (Goikoetxea, 2017). Beste-tik, Tony Blairrek gidaturiko *New Labourra*, proiektu organiko horren korronte aurrerakoia litzateke beraz ez zuen egiturazko aldaketarik sustatu (Jessop, 2016:133). Gure ikerketarako *Blairismoaren* erreformarik aipagarriena estatu egituren deszentralizazioa eragin zuen *devolution* prozesua izan zen. Kontrara, ezin dugu ahaztu botere exekutiboa indartu eta legegilea ahultzea xede zuen *Standing Order 14*¹¹ 2003. urtean bere gobernuak bultzatu zuela. Esandakoak esanda, artikulua honen amaieran krisi organikoaren azterketan sakonduko ditugu epe luzeko eraginak, beraz, hemen ez dugu dimentsio hau gehiago sakonduko.

3. Britainiar estatua eta lurraldearen artikulazio politikoa

3.1. United Kingdom: Batasunaren oinarriak eta Eskoziar estatu erakundeak

Erresuma Batua, Britainia Handia eta Ipar Irlanda elkartzen dituen erresuma da. Ohikoa da eguneroko hizkuntzan biak sinonimo moduan erabiltzea, guk orokorrean Irlandari buruz aipurik egingo ez dugunez Britainia Handiari buruz hitz egingo dugu batez ere.

Eskoziari dagokionez, lehenik eta behin, testuinguratze labur bat egitea beharrezkoa da. Erresuma Batua, Ingalaterra eta beste nazioen arteko batasun akten bidez sorturiko Estatu asimetricoa dela hartu behar dugu kontuan (Loughlin, 2009:93). Ezin da maila bereko komunitate politikoen arteko adostasun moduan ulertu, prozesuan Ingalaterrak beste hiru nazioekiko (Eskozia, Gales eta Irlanda) posizio dominantea mantendu duelako eta Ingalaterraren artean hertsapen maila handia egon zelako (idem; Keating, 2009:18).

10. 1984-85eko meatzarien greba eta meategien itxiera da honen adierazpenik argiena.

11. Hurrengo loturan eskuragarri: <https://publications.parliament.uk/pa/cm200203/cmstords/17507.htm> (azken bisita, 2019/09/06).

Hala ere, Britainiar Estatu¹², deszentralizazio maila bat eta parteen aniztasuna onartzen duen eredu Anglo-Amerikarraren adibide da (Elazar, 1991:194). Maila sinbolikoan, Ingalaterra eta Batasunaren artean ezberdintasuna mantendu zen, nagusi den nazioaren (Ingalaterra) eta komuna den nazioaren (Britainiarra) artean ezberdindu eta Britainiartasunaren barnean beste nazioen bereizgarriak¹³ onartuz. Irlandako gatazkak, Eskoziako Highlandetako herritarren kanporatzeak¹⁴ edota urteetan zehar Eskozia eta Galesen egon diren burujabetza eskaerek adierazten duten moduan prozesu baketsu bat izan ez den arren, ez du sistema kontinentaleko nazio estatu uniformizatzaile eta zentralistaren eredu jarraitu.

Bere izaerari dagokionez, Letamendiak Estatuaren sailkapen klasikoak jarraituz adierazten digun moduan, aipatu prozesua **“Estatu ahul”** moduan ezagutu denaren adibide paradigmaticoa litzateke: gizarte zibilaren garrantzia handiagoa, demokrazia maila altuagoa, zentroarekiko leialtasuna, burokrazia apala, zuzenbide publiko berantiarra, hezkuntza eta unibertsitate sistema pribatu indartsua eta lurralde administrazio auto erregulatua lirateke bere ezaugarriak aipagarrienak (1997:38).

Zehazki 1707ko *Treaty of Unionen* bidez Ingalaterra eta Eskoziaren artean egin zen batasunak ez zuen Estatu unitario ezta federalik ezarri, **“Batasun Estatu”** bat baizik. Batasun aktaren ondorioz, Britainia Handirako legebiltzar bakarra eratu arren, eskoziar gizarte zibilaren eta administrazioaren oinarritzko hainbat ezaugarri mantendu ziren, justizia sistema, gobernu lokala, hezkuntza sistema eta finantza erakunde banatuak¹⁵ izanik aipagarrienak (Keating, 1996: 197-198).

Hori dela eta, 1707an independentzia galdu arren, Eskozia historikoki ez da inoiz zentzu hertsian estatuturik gabeko nazio¹⁶ bat izan. Are gehiago, **ahalmen politikoa zuten hainbat estatu erakunde izan dira eskoziar nazioaren ezberdintasuna birsortzeko ezinbestekoak izan diren tresnak** (Paterson, 1994).

Prozesu horretan estatua, jendartea eta ekonomiaren eraldaketekin batera moldaketak etengabeak izan dira. Kasu honetan ere, Estatu egiturak eta bere botere teknologiak zenbat eta konplexuagoak bihurtu diren neurrian, gerok eta dependentzia eta konfiantza maila handiagoa sustatu da herritarrengan. Era paraleloan, erakundeak eskoziar nahien arabera jokatzeko eskaerak areagotu egin dira. Beste era batera esanda, Eskozia komunitate politiko moduan egonkortu eta bere demokratizazio propioa garatu den neurrian, demokratizazio horretan sakontzeko eskaerak areagotu dira. Argigarriak dira zentzu horretan Lindsay Patersonen hitzak:

12. Britainiar Batasunaren aldagai ezberdinak aztertzen dituen irakurketarako ikus: Keating (2009). Batez ere, “Understanding the Union” kapitulua.

13. Kirol selekzio ezberdinak honen adierazle sinboliko ezagunena da.

14. Hihglan Clearances moduan ezaguna dena.

15. Eskoziar bankuek eskoziar diru-papera igortzeko eskumena dute.

16. Honen adibide argia, Eskoziar nazionalismoaren azterketan aitzindari izan zen David McCronek lana dugu: 1992. urtean “Understanding Scotland: the sociology of a stateless nation” liburu klasikoak argitaratu zuen baina 2001. urtean liburu horren 2. edizioa argitaratzean, “stateless” titulutik kendu zuen eta “Understanding Scotland: the sociology of a nation” izendatu zuen, Eskoziak historikoki estatu erakundeak izan zituela argudiatuz.

“The forms of Scottish autonomy have changed as the state and society and the economy have changed, and what one generation might regard as autonomy might be felt by their successor to be dependency” (Paterson, 1994:4)¹⁷

Eskoziar autonomiaren eta estatu erakundeen bilakaera aztertzea gure ikerketaren xedeak gainditzen ditu¹⁸. Hala ere, laburki hurrengo elementuak azpimarratuko ditugu: 1707ko batasunaren ostean *Secretary of State for Scotland* kargua sortu arren eskoziar gaien gobernuaren ardura XVIII. mende amaieran Lord Advocate-n esku geratu zen. 1885ean *Secretary for Scotland* kargua sortzearekin batera bere eskumenak handituz joan ziren. Horren ondorioz, 1926an Kabineteko kide izatera igaro zen, gaur egunera arte dirauen ***Secretary of State for Scotland*** kargua berriz ere sortuz. Hauen esku geratu zen gobernu funtzioak betetzen zituen ***Scottish Office*** kudeatzea.

3.2. **Scottish Office: demokratizazio mugatua**

Estatuaren botere teknologien garapenak, eta batez ere ongizate estatuari loturiko erakunde eta politika publikoen hedapenak, Scottish Office-aren erantzukizun eta ahalmena handitzea eragin zuen. Honen esku, Eskoziako Hezkuntza Departamendua, Eskoziako Osasun Departamendua, Nekazaritza Departamendua, Arrantza Departamendua eta Espetxe Departamendua zeuden. Azken hirurak Scottish Home Department-ren barruan elkartu ziren 1939an.

Ez zegoen parlamentu propiorik, ezta zuzenean hautatutako gobernu demokratikorik. Hala ere, deszentralizazio administratiboaren bitartez demokratizazio mugatu bat garatzeko oinarriak zituzten. Pateronek, XX. mendean zehar Britainiar ongizate estatuaren baitan Eskoziak zuen autonomia aztertu zuen eta bere lana hartuko dugu oinarri. Lau eremu nagusi aztertzen ditu: ekonomia, etxebizitza, hezkuntza eta osasuna. Bere lanean azaldutako elementu garrantzitsuenak jasoko ditugu.

Maila ekonomikoan, politika Keynesiarrek Estatuaren parte hartze eta zuzendaritza sustatzearekin batera, botereen zentralizazioa eragin zuten eta horren ondorioz Scottish Office-ak politika ekonomikoaren gaineko kontrol gutxi zuen (Ibídem: 118). Hala ere, adostasun sozialdemokrata eta “one nation” proiektu hegemonikoaren arrakastaren ondorioz, alderdi eta sektore sozial zabalek babesten zituzten politika ekonomikoaren oinarritzko printzipioak (Jessop, 1990:183; Paterson, 1994: 117). Horren ondorioz, politiken diseinuan ahots berezirik izan ez arren, ongizatean oinarrituriko nazionalismo britainiarra Eskoziar interes nazionalak bultzatzeko tresna bateragarri moduan ikusten zen (ídem). Patersonen hitzak zuzenean jasoz:

“It was this general equating of Scottish and British interests that allowed Scottish ministers to speak on the whole range of economic matters affecting Scotland even those topics for which they had no formal responsibility” (1994:118).

17. Lindsay Patersonek 90. Hamarkada hasieran Eskoziar Parlamentuaren aldeko mugimendua gori gorri zegoenean plazaratu zuen aipatu hausnarketa klasikoa bihurtu den “The autonomy of Modern Scotland” liburuan.

18. Ikus Lindsay Patersonen lana bilakaera horren azterketarako.

Eskumen gehienak politiken inplementaziora mugatu arren eta baliabide eta araudia Britainiar estatuak zehatu arren, politika ekonomiko erregional autoktonoak garatu zituzten sindikatu eta patronala Scottish Office-aren politiken inguruan *lobby* lana egitera behartuz (Ibidem:121).

Etxebizitzari dagokionez, XIX. mendetik zeuden gabezien ondorioz, autoritate lokalen eta Estatuaren arteko lankidetzaren sustatu zen merkatu pribatuaren gabezien aurrean, parte hartze publikoa sustatuz (Ibidem:123). Scottish Office-ak eremu honetan geroz eta eskumen handiagoak lortu zituen eta Eskoziar etxebizitza politika bereiztuak garatu zituen hurrengo printzipioetan oinarrituta: subsidioen bidezko laguntza publikoak eta autoritateen aldetik etxebizitza publikoen eraikuntzaren sustapena¹⁹ (idem.). Scottish Office-aren inguruan etxebizitza arloan *policy network*²⁰ propioa garatzeaz gain, Ingalaterran nagusi ziren printzipioetatik urrundu ziren politikak garatu zituzten (idem).

Batasunaren sorreratik izandako autonomiaren ondorioz, **Hezkuntza** arloan beste edozein eremutan baino independentzia handiagoa izan zuten. Arlo honetan ere, Britainia Handi mailan adostasunak zabalak ziren eta berezitasunak inplementazio zehatzetan garatu ziren. Eskoziar hezkuntza politikak lau talderen arteko gobernantza sareak ezartzen zituen: Scottish Education Department²¹, gobernu lokalak, irakasleen sindikatuak eta aurreko hiruren ordezkariak elkartzen zituen Advisory Comitees ziren eskoziar hezkuntza politikak zehazten zituztenak (ibidem: 125). Kasu honetan ere, adostasunak Eskozian Ingalaterran baino zabalagoak ziren eta urte luzez politika bereizgarriak garatu zituzten.

Osasunari dagokionez, 1948an *National Health Service* sortzearekin batera Scottish Office-ak *National Health Service Scotlanden* eskumenak lortu zituen jada alde zuzenetik osasun sistema gobernu lokalen esku zegoelako. Hortik aurrera garatu zen sistema britainiar ereduak ezberdindu zen. Medikuek ez ziren kategoria administratibo berezietan banatu eta horren ondorioz komunitateetan erro sendoagoak zituzten (ibidem:128). Honekin batera, medikuntza pribatuak pisu baxuagoa zuen baita klase ertain altuenetan ere. Azkenik, osasun politikak hezkuntzan aipaturiko antzeko politika sareen bidez ezartzen ziren eta Londreseko zentralizazioaren aurkako etengabeko jarrera mantendu zuten (idem.).

Esandakoaren arabera, politika publikoen erabakitzeko prozesuak eta honen inguruan eraikitako gobernantza sareak dira gakoak. Zentzu horretan, antzeko joerak nagusitzen dira politika publiko gehienetan,²² beraz, **eskoziar demokratizazio**²³ *mugatu* bati buruz ari garela uste dugu. Hauteskunde eta parte hartze

19. Aurretiaz esan bezala, adostasun zabalak zeuden printzipio hauen inguruan eta Kontserbadore zein Laboristek bultzatutako politikak izan ziren. 1950-1980 urteen artean etxebizitza berrien hiru laurdena sektore publikoak eraikiak ziren, Ingalaterra eta Galesen aldiz laurden batekoa zen proportzioa (Pater-son, 1994:124).

20. Scottish Office-ak sustaturiko agentziek, autoritate lokalek, Scottish Housing Association eta disei- nuetan parte hartzen zuten arkitekto eta ikuskariak osaturikoak adibidez.

21. Scottish Office-aren departamendua.

22. Kontrara, gizarte segurantzaren ez zegoen ia ezberdintasunik.

23. Demokratizazioaren definizioarako ikus "authoritarian statism and the privatization of democracy" kapitulu- a.

demokratiko zuzenaren bidez aukeraturiko Eskoziar parlamentu bat ez zegoen neurrian, *input zilegitasun* zuzen baten falta zegoen eta ezin dugu zentsu hertsian eskoziar demokrazia bati buruz hitz egin. Hala ere, gure aburuz hurrengo dimentsioak hartu behar dira kontuan:

- Eskoziar nazioak bere burua nazio britainiarren parte osagarri moduan ordezkatu sentitu zuen urte luzez.
- Westminsterreko legebiltzarrerako hauteskundeetan aukeraturiko ordezkariak osatzen zuten gobernu²⁴ eta 1970. hamarkada arte ez zen boto dibergentzia handirik egon Eskozia eta Erresuma Batuko beste nazioen artean²⁵. Hala ere, ez zegoen Secretary of State for Scotland eta Scottish Office-aren gaineko kontrol demokratiko zuzenik (democratic accountability).
- Parte hartze publikoaren eta ongizate sistemaren hedapenaren inguruko *adostasun sozialdemokrata* zabala zegoen bai Eskozian zein Britainia Handian eta gobernu aldaketek ez zituzten oinarritzko printzipioak aldatzen.
- Eremu ezberdinetan garatu ziren *policy network* ezberdinetan, demokratikoki aukeratutako eskoziar autoritate lokalen presentzia egoteaz gain sindikatu eta arloko eragileen presentzia ere bazegoen. Horren ondorioz, marko britainiarrez gain, erakunde horien erabakien aurka jotzeko, politiziaziorako eta mobilizazio sozialerako marko eskoziar mugatu bat ere bazegoen.
- Hala ere, zentzu hertsian gobernu zentralaren erakundeek sustaturiko dezentralizazio administratibo bati buruz ari gara, kontrol demokratiko zuzenik ez zuen neurrian elite lokal bat hobesteko joera zuena (Keating, 2005:11).

Hori kontuan izanik, eskuduntza administratibo ugari zituen eta eremu eskoziar bereiztua sakontzen eragin arren, ez zuen eskoziar hautesleen kontrol demokratiko zuzenik beraz Britainiar demokraziaren baitako demokratizazio mugatu bati buruz ari gara. Hala ere, sistemaren oinarriak 60. hamarkadara arte egiturazko aldaketarik gabe mantendu ziren²⁶. Britainiar Fordismoaren eta Estatuaren krisiaren lehenengo adierazleekin batera aldiz bere mugak gero eta agerikoagoak ziren. Testuinguru horretan SNP lehenengo aldiz bazterreko aukera izatetik zentralitate politikoan kokatzera ailegatu zen. 1959ko hauteskundeetan botoen %0,5 jasotzetik 1970ean %11,4ra igo zen eta 1974an %30,4ra (Moreno, 1995). 1967an Winnie Ewingen Hamiltoneko garaipenari esker lehen aldiz SNP-k ordezkaritza lortu zuen Westminsterren eta hortik aurrera autonomiaren aldeko aldarrikapena erdigunean jarri zuen. Ewingek jada 1968an era argian adierazten zuen independentziaren helburua autogobernu demokratikoagoa sustatzea zela:

“Nosotros, los hombres y mujeres de Escocia, mejoraríamos la calidad de nuestra vida si dispusiéramos del pleno control de los asuntos económicos, políticos y sociales de nuestro país” (Moreno, 1995:163)

24. Gobernuak izendatzen zituen Secretary of State for Scotland eta Scottish Office-ko kideak.

25. 1920. hamarkadan ere boto dibergentzia egon zen eta Home Rule-aren aldeko mugimenduak piztu ziren.

26. Autogobernuaren aldeko mugimendu ezberdinak egon arren ez zuten arrakastarik izan.

Besteak beste, Iparraldeko Itsasoko petrolioak aurkitzean, SNP-k *It's Scotland's oil* kanpaina arrakastatsua martxan jarri zuen. 70. hamarkadan krisi organikoa gero eta nabariagoa zen testuinguruan, Eskoziar autogobernuaren aldeko aldarriak areagotu ziren, SNP 1974. urteko urriko hauteskundeetan Laboristen atzetik bigarren indar bihurtu zen²⁷ eta Gobernu Laboristak Gales eta Eskoziarentzat *devolution* prozesu bat martxan jartzea onartu zuen²⁸.

Lehen adierazi dugun moduan, belaunaldi batentzat autonomia zena hurrengo belaunaldiarentzat dependentzia bihurtzen hasi zen (Paterson, 1994:4). Testuinguru horretan, oraindik Ongizatezko Nazio Estatu Keynesiarra nagusi bazen ere, ostean gertatu zenaren aurrehistoria dela esan dezakegu.

Hori dela eta Ongizatezko Estatu Britainiarraren baitan zituzten estatu erakundeak eta eragileek horiekiko erlazioan jokatu zuten jarduera estrategikoaren ondorioz, Eskoziar askok ez zuten bere burua naziorik gabeko estatu moduan ikusten, “estatalitate subalterno” moduan baizik (Azkune, 2018). Berriz ere Patersonen hitzak jasoko ditugu zuzenean:

“The protest took a nationalist form because the Scottish semi-state had encouraged the development of a sense of Scottish national interest. When the state then seemed to be failing to deliver the material well-being that it had promised, new ways of organising the state were proposed more insistently. At the same time, there emerged a critique of the Scottish Office as being insufficiently democratic.” (1994:168).

3.3. Eskoziar subalternitatea: Thatcherismoa klima hotzean

Eskoziak eta Britainiar proiektuaren arteko haustura kualitatibo bat suposatu zuen Thatcherismoak ezarritako momentu estrukturalak. Horren ondorioz, Eskoziarrek bere borondatearen arabera gobernatzeko zituzten mugak agerian utzi zituen gaztazka politikoa areagotuz. McAlpinek, Linsdayk eta Wrayk adierazi bezala *“Thatcherrek irudikatzen du Eskoziako nazio nortasunak bere burua haren kontra definitzeko aurkitu zuen etsaia. Irudikatzen du Eskoziak bere interesak Estatu britainiarrarekin bat zihoazela sinesteari utzi zion unea”* (2013:72).

Hasteko, 1979. urteko *devolution* prozesuaren porrota aipatu behar da. Honek, besteak beste, Eskoziar Parlamentua sortzea aurreikusten zuen. Baiezkoak %51.67ko babesarekin irabazi arren, orotara ez zen errolda osoaren %40a heldu²⁹ (%32.9koa izan zen) eta horren ondorioz ez zen Eskoziar parlamenturik osatu. Urte horretan bertan Margaret Thatcherrek hauteskundeak irabazi ostean prozesuarekin jarraitzeko atekak itxi ziren.

Gure aburuz, 1979tik aurrera aurreko hamarkadetan eskoziar estatu/nazio eraikuntzaren ardatzak izan zirenak kolokan jarri ziren desdemokratizazioa sustatuz. Era paraleloan elkar elikatu zuten bi prozesu garatu ziren: (1) eskoziar demo-

27. Laboristek %36.3 eta 41 eserleku lortu zituzten SNP-k botoen %30.4 eta 11 eserleku.

28. SNP eta Plaid Cymruen arrakastaren ondorioz, 1968 amaieran Harold Wilson Laboristak “Konstituzio Batzorde Erreal” bat sortzea agindu zuen eta 1973an aurkeztu zuten “Kilbrandon Txostenak” deszentralizazio prozesu bat gomendatu zuen.

29. Erroldaren %40aren babesaren baldintza, George Cunningham parlamentari laboristak ezarritako emendakinen baten ondorioz ezarri zen.

kratizazioaren eta estatu/nazio eraikuntzaren ardatzak izan zirenak Thatcherismoak ahuldu edo guztiz ezabatu zituen bitartean, (2) eskoziar autogobernuaren beharra geroz eta gehiago hedatu zen jendartearen zehar. Prozesu honi hertsiki loturik, hurrengoa ere azpimarratu behar da: (1) Britainiartasuna balio kontserbadoreetan oinarrituta berrartikulatu zen bitartean, (2) Thatcherismoa kanpo eratzaille moduan erabilia balio sozialdemokratetan oinarrituriko Eskoziar nazioaren berrartikulazioa eman zen.

Lehenengo prozesuari dagokionez, planorik orokorrean jada ikusi bezala, Thatcherrek eremu gehienetan autoritate pribatuak geroz eta gehiago ahalduz-arekin batera, botere exekutiboa indartu eta zentralizazioa sustatu zuen. Honen bidez, eskoziar erakundearen ahalmen politikoa murriztearekin batera aktore pribatuak indartu zituen. Horretaz gain, eskoziarrek kontserbadoreen politikak euren aurka zuzendutako erasotzat jo zituzten. Zehazki David McCronen hitzak zuzenean jasoz:

“In Scotland, the attack on state institutions – the nationalised industries, the education system, local government, the public sector generally, even the Church, institutions which carried much of Scotland’s identity- was easily perceived as an attack on ‘Scotland’ itself (2001:122)

Plano zehatzago batean hurrengoa azpimarratuko dugu. Maila ekonomikoan eskumenak oso mugatuak izan arren hamarkadetan zehar politika erregional autoktonoak garatu zituztela esan dugu (Paterson, 1994:121). Thatcherismoak kontrara honen aurka era zuzenean jo zuen. Eskoziar iritzi publikoan ongizatearen oinarritzat jotzen ziren sektore ekonomikoak gogor kolpatu zituzten. Ontzi eraikuntza, siderurgia eta meatzaritza izan ziren kaltetuenak baina industria astun osoari eragin zion (Mitchell & Bennie, 1995:94). 1979an eskoziarren 1/3 industrian egiten zuen lan, 1984an 1/4a baino gutxiago eta 1989an 1/5. Hurrengo taulan dakusagun moduan joera hori denboraren poderioz areagotu besterik ez da egin:

4. irudia. Eskoziar sektore ekonomikoen garapena 1989-2015

	1989	1999	2009	2015
Lehen sektorea	%1.5	%1.9	%1.9	%1.3
Energia eta Ur hornidura	%2.9	%2.2	%3.4	%3.8
Industria	%20.5	%14.9	%8.7	%8.6
Eraikuntza	%6.6	%5.5	%7.9	%6.8
Zerbitzuak ³⁰	%68.4	%75.5	%77.6	%79.1

Iturria: nomis 2018

30. Datu hauen arabera zerbitzuen sektorea handiagoa da ez dutelako petrolio kontuan hartu. Eskoziari buruzko kapituluaren ikusiko dugun moduan, petrolio kontuan hartuta datuak nabarmen aldatzen dira, zerbitzuak %61era jaitsiz eta mehategi eta petroleoa ateratzea %21era igoz.

Industriaren gainbehera, **post-fordismoaren baitan finantziarizazioaren** aldeko hautua egin zuten ekonomien ezaugarri komuna da eta Britainiarra honen adibide paradigmaticoa da (Jessop, 2016: 135). Eskozian bestalde, **autogobernuaren beharra** lehen lerroan jarri zuen mobilizazio orokorra eraginez eta lantegien biziraupena Eskoziaren osasunaren ideiarekin lotuz (McAlpin, et.al 2013:73). “*Eli-zek, Eskoziako Sindikatuen Kongresuak* (STUC), *politikariek* eta *Eskoziako Herritar* taldeek bat egin zuten Eskozia osoa hartuko zuen industriaren eraispenen gaineko fronte batean”³¹ (ibidem:72).

Laborista eta SNP-ko kideek gobernatutako Erakunde lokalen eskumenak murrizteaz gain, Scottish Office-aren zilegitasuna bere historiako baxuena zen. Gobernu Kontserbadoreen garaian (1979-1997) *Secretary of State for Scotland* eta *Scottish Office*-ko arduradunak gobernu zentralak izendatu zituen Eskozian botoen gutxiengoa izan arren. Aurreko urteetan salatzen zuten defizit demokratikoa (democratic unaccountability) era nabarmenean agerian geratu zen. Ikuspegi hau, Eskoziarrek babesten ez zituzten politikak hartzearekin batera areagotu besterik ez zen egin. 1989. urtean ezarri zen etxebizitzaren gaineko *poll-tax* zerga da honen adibiderik argiena. Honen bidez, etxebizitza guztiei zerga berdina ezarri zitzaizkien diru sarrierak kontuan hartu gabe eta aurreko zerga progresiboa bertan behera utziz (Mitchell & Bennie, 1995:94). Horretaz gain Eskozian, Ingalaterran eta Galesen baino urtebete lehenago ezartzeak *Eskoziaren aurkako neurritzat* jo zuten protesta dinamikak gogorra zabalduz (idem.). Bestetik, aurreko hamarkadetan etxebizitza publikoaren erakuntza/jabetza oinarri zuten politikaren ordez, hauen erakuntza/jabetzaren pribatizazioa eragin zuten politikak sustatu ziren.

Hezkuntza sisteman sustatu erreformek ere erantzun zabala jaso zuten. Irakasleen sindikatu nagusienak, hitz berri bat asmatu zuten gobernu kontserbadoreek Eskozian ezarri zituzten politikak deskribatzeko: “*Englishing of Scottish education*” (idem). Gubernamentalitate neoliberalaren *egia erregimena* jarraituz, hainbat arlotan pribatizazioak sustatzeaz gain erakunde publikoetan merkatu ikuspegia txertatu zuten Eskozian publikotasuna eta balio sozialdemokratikak nagusi ziren bitartean (Paterson, 1994:169). Eskoziar independentziaren sinbolo zen lege sistema ere aldatzen saiatu ziren klase ertaineko eliteen protesta gogorra eraginez (idem).

Eskoziar demokraziaren aurkako erasotzat jo ziren bai Thatcherismoa bai bere osteko gobernu kontserbadoreak ere. 1979an eskoziarren %52ak uste zuen Eskoziar gaietan Kontserbadoreengan konfiantza izan zezaketela. 1990eko abuztuan egin zen inkesta batean aldiz %13-k soilik uste zuen Britainia Handiko Gobernuak Eskoziar interesak era egokian babesten zituela (Mitchell & Bennie, 1995:99). Inkesta beraren arabera, %79ak uste zuen Alderdi Kontserbadorea, Eskozian garrantzia gutxi zuen alderdi Ingelesa zela (idem).

Honen aurrean, *devolution* prozesuarekin jarraitzeko 80. hamarkadaren hasieran Eskoziar Parlamentuaren Aldeko Kanpaina³² martxan jarri zen. 1989. ur-

31. Eskoziar memoria kolektiboan hamaika lantegitan aurrera eramandako borroka, “Eskoziar Sozialistaren” ideia jaulkitzen lagundu dute (McCrone, 2001:139). Hauek lirateke esanguratsuenak: Upper Clydekoko Ontziolak, Clydebankeko Singer, Carron Iron Works, Bathgateko Leyland British, Corpach Paper fabrika, Invergordon fundizioa, Linwood, Caterpillar eta Ravenscaig (McAlpin, Lindsay, Wray, 2013:73).

32. Campaign for a Scottish Assembly.

tean eragile politiko, sozial eta sindikal gehienak³³ *Eskoziako Konbentzio Konstituzionalean*³⁴ elkartu ziren Legebiltzar propioa eta autonomia aldarrikatuz (McAlpin, Lindsay, Wray, 2013:73).

Prozesu guzti honen atzean dagoen mekanismoa burujabetza gabezia bat dela uste dugu, Eskoziarren borondatearen arabera gobernatzeko eta eskoziarrak gobermatze prozesuan sartzeko ahalmen politikoaren falta. Hori dela eta, ez zen estatuturik gabeko nazio baten defentsa, are gutxiago kultura ezberdin baten babesa. *Estatalitatearen izaera subalternoaren* ondorioz bere demokratizazio prozesua garatzeko ahotsa izatea zen eskatzen zutena (Azkune, 2018). Berriz ere Patersonen hitzak gure egiten ditugu:

“The only way to understand that is to continue to remind ourselves again that, **in crucial respects, what was being attacked was indeed a separate state**, not merely the field agencies of a unitary power” (Paterson, 1994: 170)

Hala ere, prozesuak ez dira “gertatzen”, aktoreen jarduera estrategikoari hertsiki loturik daude. Gatazka hauetan, interpretazio diskurtsiboek eta hegemoniaren erakuntzak garrantzia berezia hartzen dute. Hori dela eta, arestian aipatu bigarren dimentsioa kontuan hartuz, Thatcherismoa kanpo eratzaille moduan erabilita balio sozialdemokratetan oinarrituriko Eskoziar nazioaren berrartikulazioa eman zela aintzat hartu behar dugu.

Kontserbadoreen diskurtsoan, Eskoziak, ekonomikoki diru laguntza publikoaren menpekoa, *subsidiatuta* eta ez lehiakortzat jotzen zen *marvellously tolerant English-ekin*³⁵ konparatuta (Mitchell & Bennie, 1995:94). Thatcherismoaren *Britaniartasunean*, Eskoziak bazterrean geratu zen eta batez ere Ingalaterrako hegoaldean erresonantzia zuten ideiak baliatu ziren. Alderdi Kontserbadoreak ez zuen Eskoziako botoen beharrik agintean mantentzeko beraz politikoki ez zion zuzenean hauteskunde higadurarik eragiten.

Burujabetza faltak bestalde, Eskoziarren hautuen arabera gobernatzea oztopatzen zuen, ase gabeko eskarien metatzea eraginez eta eremu anitzetan gatazka sozialak sortuz. Hauek, Thatcher eta Toryen aurka (haiek) mantentzen zuten jarreraren ondorioz euren artean era ekibalentzian artikulatu ziren (gu) berri bat eraikiz (Azkune, 2017:92). “Gu” horren ezaugarritzean, Eskoziaren artean zehar *sedimentatutako* ideiak azpimarratzen zituzten merkatuaren eta pribatizazioaren gorespenari aurre egiteko. Beste hainbaten artean McCronek hurrengoak

33. Alderdi Laborista, Alderdi Liberal Demokratikoa, Eskoziako Berdeen Alderdia, Alderdi Komunista, Eskoziako Sindikatuen Kongresua, Eskoziako Garapen eta Industria Kontseilua, Enpresari Txikien Federazioa, Eskoziako Eliza, Eliza Katolikoa eta beste hainbat elkarte hartu zuten parte. SNP-k hasieran parte hartu zuen arren alderdi barruan “maximalista” eta “gradualista” artean zeuden tentsioen ondorioz eta independentziaren gaia ez zela eztabaidatuko jakin ostean Konbentzioa utzi zuen (McAlpin, Lindsay, Wray, 2013:73).

34. Scottish Constitutional Convention.

35. Daily Express egunkarian 1990eko otsailean egindako adierazpenak dira. Mitchell eta Bennieren aipu osoa jasoz: “Mrs Thatcher informed Scots that they were privileged to be subsidized by the ‘marvellously tolerant English’ (1995:94).

azpimarratzen ditu: Ingalaterran baino klase ezberdintasun txikiagoa aldarrikatzen zuen *igualitarismoaren ideia*; balio komunak eta kohesio maila handia dituen *kolektibismoaren ideia*; Eskozia *borrokalaria eta sozialistaren* aldarrikapena; *Hezkuntza sistema garatuarena* eta honi loturik historikoki Ingalaterrak baino alfabetatze maila altuagoa izateren ideia (McCrone, 1992: 88-120).


Eskoziar demokraziaren defentsa, beste eskari guztiak ordezkatzeko gaitasuna izan zuen artikulazio ekibalentzial argia eraginez (Laclau, 2005) . Honen adibide on bat eskaintzen digu berriz ere Patersonen lanak:

“the assertion of Scottish democracy allowed feminists to raise women’s rights in the debates about Scotland’s future to an extent that had never happened before: they, and also campaigners against racism, now had a semi-official national ideology of Scottish democracy with which they could challenge anyone who was advocating constitutional or political change” (1994:173).

Borroka ezberdinen arteko kontiguitate harremanaren ondorioz desplazamendu bat eman zen (Eskoziar demokraziaren defentsa eta borroka feminista, arrazismoaren aurkakoa, langileen defentsa, industriaren defentsa etab.). Thatcherismoaren aurkako borrokaren eraginez Eskoziar demokraziaren defentsa eskaera ezberdin horiek ordezkatzeko gaitasuna zuen metafora bihurtu zen (Azkune, 2017:101).

Esandakoa kontuan hartuz, 80. hamarkadatik aurrera nazio identitatea, sozialdemokraziaren defentsa eta autogobernuaren aldarrikapenak euren artean elkar elikatu ziren dimentsioak izan ziren era argian adierazteko *Eskoziar ezberdina zela* (McEwen, 2006:139). Eraikitako *Eskoziar sozialdemokrataren* hegemoniaren grafikoa horrela laburtu dezakegu:

5. irudia. Eskoziar nazio identitatea eta balio sozialdemokratak



Iturria: Egileak egina, 2019

Gutxieneko eskaera Eskoziar Parlamentuaren sorrera zen eta hau Eskoziar demokraziaren garapenarekin hertsirik loturik zegoen. Zuzenean McCrone eta McEwenek honen inguruan egindako aipuek guk baino hobeto jasotzen dute idea:

“[...] a Scottish Parliament was seen as a means to an end, and that end was better government and an expected improvement in social and public welfare” (McCrone, 2001:123)

“The establishment of a Scottish Parliament came to be regarded and promoted, not just as a vehicle for the expression of Scottish national identity, but as a pre-requisite for better public services and progressive social and economic change in line with Scottish policy priorities” (McEwen, 2006:139)

1997an Tony Blairren gobernu Laboristak Gales eta Eskoziako devolution prozesuak martxan jarri zituen. Eskoziaren kasuan bi galdera proposatu ziren: lehenengoak Eskoziar Parlamentuaren sorrerari buruz galdetu zuen eta bigarrena azken honek zergak moldatzeko eskumena izateari buruz. Parlamentuak %74.3ko baietza jaso zuen eta zergak moldatzeko eskumenak %63.5. Horren ostean Eskoziar demokratizazioaren sakontzea ahalbidetu zuten estatu egituren deszentralizazioa garatu arren, Thatcherismoak eragin zuen hausturak gaur egunera arte iraundu.

4. Britainiar krisi organikoa: *Disunited Kingdom*

4.1. Brexita eta krisi organikoa

Demokraziaren pribatizazioaren ondorioz herritarrak boteretu eta bere gobernu sozioekonomikoan barneratzeko beharrezkoa den gaitasun politikoa esku pribatuetan utzi dela adierazi dugu (Goikoetxea, 2017:16). Zentzu horretan, Thatcherren garaian ezarritako egiturazko aldaketek, Mayorren garaian eta “Blairismoan” jarraikortasuna izan zuten (Jessop, 2016). Ipar Atlantikoko Krisi Finantzariaren ondorioz aldiz desdemokratizazio prozesua areagotu eta burujabetza eta demokratizazio eskaerak ugaritu dira. Ikusiko dugun moduan, hauek ezkerreko zein eskuineko artikulazio populisten bidez bideratu dira eta horren ondorioz eduki demokratiko eta xenofoboak izan dituzte. Brexita eta Eskoziako independentziaren aldeko mugimendua krisi testuinguruetan ohikoak diren populismo mota horien adibide dira. Edukiak oso ezberdinak izan arren, euren atzean dagoen mekanismo nagusia burujabetza galera bat da. Lehenengoan jarriko dugu arreta nagusia ostean Eskoziar kasua aztertzeko. Hala ere, arestian aipatu moduan prozesu bakoitzean nagusitu diren ezaugarri bereizgarriez harago komunean duten krisi organikoa izango da azterketaren oinarria.

Gure ikuspegitik Brexit-a Britainiar krisi organikoaren ondorio eta sustatzaile da aldi berean. Gogora dezagun Gramscik honen inguruan eskaintzen digun definizioa:

“These situations of conflict between “represented and representatives” reverberate out from the terrain of the parties (the party organisations properly speaking, the parliamentary-electoral field, newspaper organisation) throughout the State organism, reinforcing the relative power of the bureaucracy (civil and military), of high finance, of the Church,

and generally of all bodies relatively independent of the fluctuations of public opinion. How are they created in the first place? In every country the process is different, although the content is the same. And the content is the crisis of the ruling class's hegemony, which occurs either because the ruling class has failed in some major political undertaking for which it has requested, or forcibly extracted, the consent of the broad masses (war, for example), or because huge masses (especially of peasants and petit-bourgeois intellectuals) have passed suddenly from a state of political passivity to a certain activity, and put forward demands which taken together, albeit not organically add up to a revolution. A "crisis of authority" is spoken of: this is precisely the crisis of hegemony, or general crisis of the State (Gramsci, 1999: 450-451)".

Zergatik Brexita? Zeintzuk dira bere egiturazko arrazoiak? Krisi testuinguruetan, aurreko tentsio eta kontraesanak kondentsatu eta garapen "normalaren" eritimoa hautsi egiten da (Poulantzas, 1971:59). Kasu honetan, Thatcherismoaren garaian ezarritako momentu egituratzailearen haustura eta *momentu koiuntural* berri batean zabalera eragin zuen (Jessop, 1982:253), ekintza politikoari aukeren espirala zabalduz (McAdam, Tarrow, Tilly, 2001:181-186). Argigarriak dira zentzu horretan Colin Hayen hitzak:

"For in a way this is an internal and an external crisis- a UK crisis, a Eurozone crisis, a crisis of the West, even a global crisis. But, from a UK perspective, it is also far worse than that. Why? **Because the origin of all of these associated crises lies in the Anglo-American capitalism of which the UK, since at least the 1980s, has been perhaps the key architect.** It is a crisis of Anglo-liberal excess and of a globalisation couched in this image" (2014:61)

Hayen hausnarketak bete-betean gure ikuspegiarekin bat egiten du, beraz, arestian aipatu ditugun thatcherismoaren epe luzeko ondorioak hartu behar ditugu kontuan. Lehenik eta behin metaketa estrategiaren ezaugarri nagusien ondorioak aztertuko ditugu bigarren pauso batean Brexita eta krisi organikoaren ezaugarriak aipatzeko.

Laurogeigarren hamarkadan bultzatu zen *metaketa estrategiaren* eraginez, Europako zenbait herrialdeetan hobetsi zen Ezagutzaren Ekonomia³⁶ ordez, finantzen gidaritzapean oinarrituriko metaketa³⁷ hobetsi zela hartu behar dugu kontuan (Jessop & Sum, 2013:416-421). Horren ondorioz, azken hamarkadetan zorpeztzea eta interesen etekinean oinarrituriko finantziarizazioa sustatu dira, kapital produktiboaren kaltetan (Jessop, 2016:135).

Zeintzuk dira horren eraginak? Behar sozialak asetzeko xedea duen balio erabilera bultzatu beharrean, aldaketa balioan oinarrituriko diruzko etekina pribilegiatu da (idem). Zehazki, kapital finantzaria eta kapital industrial transnazionala beste kapitalaren frakzioen ordez eta klase subalternoen kaltetan pribilegiatu dira (idem.). Londreseko Citya nazioarteko finantza kapitalaren erreferentzia zentroa bilakatu da, aurretiaz zuen boterea areagotuz eta azken urteetako finantza eskandalu ezagunenaren gune bihurtuz.

36. Knowledge-based economy. Batez ere 90. hamarkadan Europako zenbait herrialdeetan hegemonikoa bihurtu zen.

37. Finance-dominated accumulation ingeleraz.

Desindustrializazioa izan da aipatu txanponaren beste aldea. Mantendu den industria sektorean kanpoko kapitalari ateak zabaldu dizkiote gobernu ezberdinek *open for business* dinamiken bidez. Horren ondorioz, britainiar industriaren garapena, estatuaren estrategia ekonomiko koherente baten eskuetan egon ordez, nazioarteko estrategietan txertatzeko gaitasunen araberakoa izan da (idem.). Aipatu dinamikek erregioen arteko desoreka sustatu dute Londres eta Ingalaterra hegoekialdea estrategikoki hobetsiz.

Azken finean, estatu gaitasun baxuen eta estrategia neoliberalaren ondorioz, ekonomia erreal ahula eta etengabeko etekinak bilatzen dituen finantza sektore hipertrofiatuaren indartzea izan dira ondorioak (idem:137).


Elementu horiek kontuan hartu behar ditugu Brexitaren eta Britainiar krisi organikoa plano zehatzago batean azaltzeko. Zeren ondorioa da Brexit? Gure aburuz, burujabetza galera baten eta desdemokratizazio prozesu baten ondorioa da. Galdera sakona izan arren Jessopen kokapena egokia iruditzen zaigu:

"The Brexit conjuncture reflected a long-running split in the establishment, a worsening representational crisis in the party system, a growing crisis of authority for political elites, a legitimacy crisis of the state and a crisis of national-popular hegemony over the population." (ibidem:134)

Hori kontuan izanik, Britainiar estatuaren krisi organikoaren dimentsio nagusiak aztertu ditzakegu arestian aipatutako Bob Jessopen estatuaren krisi dimentsioak baliatuz. Hasteko, **ordezkaritza krisiaren** adibide argia da azken hamarkadetan botere blokea eta sektore sozial zabalak artikulatu dituzten Tory eta Laboristen krisia. Barruti indibidualetan oinarrituriko *first-past-the-post* sistemak era argian bipartidismoa hobesten duen neurrian, zaila da era arrakastatsuan alderdi berriak sortzea. Horren ondorioz, ordezkaritza krisia ezin dugu parlamentuan duten ordezkari kopuruarekin ezta botoen ehunekoarekin neurtu. Euren kide kopuruak eta orientazio estrategikoez aldiz datu kualitatibo sakonagoak direla uste dugu.

Hori kontuan izanik, hurrengo datuetan ikus dezakegun moduan gerra osteko loralditik azken hogeita hamar urteetan galera jarraia bizi izan dute. Laboristen kasuan, Blairren lehenengo urteetan igoera txiki bat antzeman daitekeen arren, daturik aipagarriena Corbynen lidergoaren ostean *establishmentaren* aurkako diskurtso berrituaren ondorioz lorturiko gorakada da. Kasu honetan, alderdi berriak sortzeko dauden egiturazko mugak kontuan hartuta, barruan zegoen outsider batek, alderdi zahar baten eraldaketa sustatu du Bernie Sandersek AEB-etan egin zuenaren antzera (Del Amo, 2017:79). Beste hainbat herrialdeetan bizi den artikulazio populista eta herri burujabetzaren adibide argia eskaintzen digu (Azkune, 2016:34). UKIPen indartzea ere txanpon beraren beste aldea litzateke. Hala ere, bere eraginik handiena diskurtso politikoa baldintzatzea eta Europar Batasunetik ateratzeko beste alderdiei presioa egitea izan da. Zehazki, Toryen diskurtso eta planteamenduetan eragitea eta mapa politikoa eskuinera biratzea izan da euren arrakasta nagusia. Hala ere, Brexitaren ostean Nigel Farage alderdiaren buruak dimittitu zuen eta etengabeko krisian sartu da. Eskuin populistaren espazioa aldiz era arrakastatsuan bete du 2019. urtean UKIPeko buru ohiak sustatutako Brexit Party-a. Faragen alderdiak 2019ko maiatzean ospatu Europar Hauteskundeak irabazi zituen Tory eta Laboristen boto emaile euroeszeptikoen babesa jasoz.


6. irudia. Alderdi Laborista eta Kontserbadoreen alderdi kideen bilakaera³⁸



Iturria: Keen & Jackson, 2018

Honekin batera gobernuetik konfiantza galeraren garapena argia da. Britainiar gobernuak inoiz sinisten ez zutenen kopurua 1974an %10koa zen bitartean, 2009an %40koa zen (Cousins, 2011).

7. irudia. Britainiar gobernuak “ia inoiz sinisten ez dituztenen”³⁹ ehunekoa




Iturria: Cousins (2011)

38. Ezkerreko zutabeko datuen erreferentzia milaka.

39. “Almost never trust” jatorrizkoan.

Alderdien beherakadarekin batera, sindikatuen gainbehera eta honi loturiko soldata diferentziaren hazkundea da aipagarriena. Hurrengo grafikoan ikus dezakegun moduan, 1980tik aurrera era ia proportzionalean bat egiten dute sindikatuen kideen kopuruaren jaitsiera eta goiko klaseen (top 1%) diru sarreren hazkundea. Lehen adierazi bezala thatcherismoaren garaipen aipagarriena sindikatuen garaitzea izan zen eta bere ondorioek gaur egunera⁴⁰ arte iraun dute.

8. irudia. Sindikatuen afiliazioa eta soldata ezberdintasuna



Iturria: McGaughey, 2016


Estatuak krisiaren kudeaketan izan zuen parte hartzearen eraginez estatua-
ren **krisi fiskala** sustatu zen, eta, horren ondorioz, estatua-
ren interbentzio meka-
nismoak ahuldu ziren. Honek lotura zuzena du **soberania materialaren galerarekin eta gaitasunen krisiarekin**. Aipagarriak dira, finantza sistemaren kri-
sian diru publikoaren erabilpena; sustatu diren zerga jaitsierak; krisiari aurre egi-
teko behar sozialen hazkundea (langabezia saria adibidez) eta ekonomiaren
hainbat sektoreetara zuzendutako dirua (ibilgailuen sektorera adibidez) (Hay,
2014:62). Hala ere, arrazoi nagusia aktibitate ekonomikoaren jaitsieran kokatzen
da (idem). Hori kontuan izanik, arazoa Estatuaren baitan egon ez arren, honen in-
guruan nagusitu diren erakuntza diskurtsibok Estatuaren zorrean jarri dute arreta
(ibidem:65). Horren ondorioz, metaketa strategiaren krisiaren ordean, zor publiko-
aren krisiaren irakurketa nagusitu da aurreko paradigma kolokan jarri beharrean

40. Sindikatuen presentzia sektore publikoan %93koa den bitartean sektore pribatuan %23koa da eta horren ondorioz greba kopurua ere sektore publikoan nagusitzen da (Cousins, 2011).

berau indartuz⁴¹ (ibidem:72-73). Horri aurre egiteko gastu publikoaren murrizketa bultzatzeaz gain austeritate politikei izaera estrukturala eman diete (Jessop, 2015:234). 2010 . urtetik aurrera, George Osborne Ogasun Ministroak (Chancellor of the Exchequer) funtsezko rol-a izan zuen austeritatearen paradigmaren ezarpenean. Momentu zehatzeko salbuespeneko politikak, epe luzerako egiturazko politika bihurtu ziren sektore sozial zabalak kaltetuz, aktore pribatuak boteretuz eta demokraziaren pribatizazioa areagotuz (Goikoetxea, 2017).

Bestalde, Jessopek adierazten duen moduan, botere ekonomiko eta politikoaren **oinarri soziala** mantentzeko euskarriak ahulak dira (2016:137). Honek beste dimentsioek sustatzen duten **estatuaren zilegitasun krisia** areagotu besterik ez du egiten. Gerra osteko ereduaren ongizatearen hedapena eta enplegu betearen orde, herri kapitalismoa, populismo autoritarioa eta kultura enpresarial diziplinarioa dira bere ardatzak (idem). Zehazki, esportazioetan oinarrituriko inbertsio produktibo eta epe luzeko lehiakortasuna bultzatu orde, herri kapitalismoaren oinarri den etxebizitzaren jabetza eta Keynesianismo pribatizatua⁴² sustatu dira (idem). Horrek, goi mailako klaseak indartu, klase ertainak txikitu eta klase baxuenen kopurua handitzea eragin du (idem.). Aurreko grafikoan ikusi dugun ezberdintasunaren hazkundearen logika berean, gini adierazlea⁴³ oinarri hartuta hurrengo datuak ikus ditzakegu:

9. irudia. Gini adierazlearen garapena 1961-2016



Iturria: Equality Trust, 2016

41. "Paradigm challenging" orde "paradigm reinforcing" irakurketa nagusitu da.


42. Privatized Keynesianism edo Asset Price Keynesianism dira honi erreferentzia egiteko erabiltzen diren terminoak. Laburki hurrengo esan nahi du: soldadak eta eros ahalmena bera egin arren, kontsumoa mantentzeko finantziario pribatua hedatzea

43. Estatistikan, Giniren koefizientea errentaren desberdintasunaren neurketarako eta beste aldagaien kontzentrazioa neurtzen duen koefiziente bat da. Oтик 1era bitarteko balioak hartzen ditu: 0 erabateko berdintasuna da eta 1, erabateko kontzentrazioa.

Honekin batera, *lurralde eta barneratze instituzionalaren krisia* edo batzuek *Batasunaren krisia* (Cairney, 2014) izendatu dutena hartu behar da kontuan. Zentzu horretan, aurrerago landuko dugun arren, 2014. urteko Eskoziako independentzia erreferenduma eta horren osteko dinamika politikoa Britainiar krisi organikoaren ondorio eta sustatzaile dira aldi berean (Azkune, 2016). Artikulu hau idazteko momentu zehazturik egon ez arren⁴⁴, Brexitaren ondoren bigarren independentzia erreferendum baten aukera zabalik mantendu da Batasunaren krisia areagotuz. Horretaz gain, Irlanda Iparraldearen eta Irlandako Errepublikaren arteko harremanen inguruko gorabeherak ere Batasun horren krisiaren beste adierazle bat lirateke.

Azkenik, *Ingalaterra komunitate politiko moduan Batasunetik era ezberdindu batean geroz eta gehiago identifikatzen hasi da, historikoki indartsua zen Britishness baten ordeztuz Englishness berri bat eraikiz*. Honek kanpo erataile moduan Europar Batasuna erabili du Brexitaren artikulazio diskurtsiboan gakoa den papera jokatzuz (Henderson et. al, 2016). Ingalaterran, nazio identitateari buruz galdetzean 1992. urtean %31-k bere burua English moduan definitzen zuten bitartean %63-k British moduan definitzen zuten (Jeffery et al, 2014:8). 2014an aldiz biek jasotzen zuten identifikazio maila bera. Hurrengo grafikoetan ikus dezakegu azken urteetako garapena eta honek Europar Batasunaren aurkako jarrekin duen lotura:

10. irudia. Identitate Ingelesaren garapena 1992-2014



Iturria: Jeffery et al, 2014

44. 2019ko abenduan.

11. irudia. Nazio identitatea eta Europar Batasunarekiko jarrera

Europar Batasunarekiko jarrera	Nazio identitatea		
	Guztira	English	British
Gauza ona	34	23	42
Gauza txarra	34	45	26

Iturria: Jeffery et al, 2014

Erresuma Batuko beste nazioetan gertatu den moduan, **identitate ingelesa britainiarraren kaltetan indartu da**. Hala ere, kasu honetan ezberdintasun argia dago: identitate ingelesa eta Europar Batasunaren aurkako jarreraren arteko loturak estuak dira. Honekin batera, devolution prozesuaren ostean Ingalaterrak zuzeneko ordezkariarik ez izateak bidegabekeria⁴⁵ sentimendua sortu du (Kenny & Gover, 2016:1). Parlamentu propiorik ez izateak, besteak beste, West Lothian Question⁴⁶ moduan ezagutzen den gatazka sortu du. Honen ondorioz, Ingalaterrako parlamentariak Eskozia, Gales eta Irlanda Iparraldeari itzulitako eskumenean erabakitzeke ahalmenik ez duten bitartean, azken hauek Ingalaterrako gaiei buruz erabakitzen dute. Auzi honek, sistema konstituzionalean aldaketak egiteko proposamenen ugaritzea ekarri du, English Votes for English Laws (EVEL) izanik azken urteetan indartu dena (idem). Horretaz gain, Britainia Handia estatu federal bilakatzea, Ingalaterrak devolution prozesu propioa izatea edota Ingalaterrako erregioei autonomia gehiago ematea izan dira proposamen eztabaidatuenak (idem.). 2015eko otsailean egindako inkesta batean adibidez %44ak Ingalaterrak parlamentu eta gobernu propioa izatea babesten zuen %28a aurka agertzen zen bitartean⁴⁷.

Guzti honekin batera, nazioaren *interes orokorra*⁴⁸ ordezkatzeko gaitasuna duen hegemonia nazional herritar baten faltak, **hegemonia krisi** bat sortu du (Jessop, 2016:134). Testuinguru horretan ulertu behar dira lehian dauden artikulazio populisten indartzea. Krisi egoerak, gertakari politikoak, momentu demokratikoak sorturiko ezegonkortasunak, artikulazio populista bat burutzeko momentu pribile-

45. "The transfer of legislative powers to Scotland and Wales has created a series of constitutional anomalies, and there is evidence to suggest these are one source of a growing sense of grievance in England about its constitutional position within the UK." (Kenny & Gover, 2016:1).


46. For how long will English constituencies and English Honourable members tolerate ... at least 119 Honourable Members from Scotland, Wales and Northern Ireland exercising an important, and probably often decisive, effect on English politics while they themselves have no say in the same matters in Scotland, Wales and Northern Ireland?

47. Should England have a devolved government? zen egindako galdera. Hurrengo loturan eskuragarri: <http://whatscotlandthinks.org/questions/should-england-have-a-devolved-government-like-scotland-and-wales-english-views#table> (azken sarrera: 2019/09/10)

48. Adierazi dugun moduan interes orokorraren ideia fikzio bat da, beti sektore batzuk pribilegiatuko dituelako.

giatuak dira. Kontuan hartu behar dugu populismoa ez dela mugimendu edo orientazio ideologiko zehatz bat, *logika politiko* bat baizik (Laclau, 2005:150). Hori dela eta, ikuspegi antagonikoak izan arren, Brexita eta Eskoziako independentziaren aldeko mugimenduak populistatzat⁴⁹ joko ditugu. Zein da Laclaren teorian populismoa eta hegemoniaren arteko ezberdintasuna? Hegemonia parte batek osotasun bat ordezkatzeko helburuarekin artikulaturiko praktika litzatekeen bitartean, populismoa hegemonia hori eraikitzeke logika politiko bat (beste batzuen artean) izango litzateke. Hegemonia kategorio orokorragoa litzateke eta populismoa hegemonia berri bat eraikitzeke forma bat. Politika aldiz, aurrekoak baino orokorragoa litzateke. Kasu askotan hauteskunde lehiara mugatzen den politika adibidez, ez da hegemoniaren eraikuntzan oinarritzen. Hurrengo irudian sailkatuta ikus dezakegu:

12. irudia. Politika, hegemonia eta populismoa



Iturria: Errejon, 2011

Zeintzuk dira beraz artikulazio populistak galdatzen dituen baldintzak?

- Laclaren aburuz, lehenik eta behin jendarte bi eremutan era dikotomiko batean banatzea beharrezkoa izango da (Laclau, 2005:110). *Remain* eta *Leave*⁵⁰ aukerek zuzenean banaketa dikotomiko hori sortarazten dute.
- Aipatu dikotomia horrek eremu sozialaren banaketa antagonikoa eragin beharko du (Laclau, 2005:110). *Remain/Leave* aukerek polarizazio antagoniko bat eragin zuten muturreko posizioak urrunduz eta erdian zeudena poloen alde batera edo bestera aukeratzera behartuz.
- Krisi testuinguru batean ugariak dira sistemak asetzen ez dituen eskaera politikoak. Hauek banaturik mantendu daitezke edo euren artean 'logika ekibalentzialaren' bidez elkartu. Horretarako funtsezkoa izango da kanpo

49. Eskoziako kasua aurrerago aztertuko dugu.

50. *Remain* = Europar Batasunean mantendu. *Leave* = Europar Batasunetik irten.

‘etsai’ bat finkatzea. Ikusi dugun moduan, zilegitasun krisi sakon baten testuinguruan errudunak *statu quoarekin* lotu ziren hauek herriaren ‘etsai’ bihurtuz. Bestetik, sistematik at sentitu diren pertsona eta eskaera sozial ugari ‘Brexitarren’ bidez konektatu ziren. Hori dela eta, Laclauen hitzak erabiliz, *eremu herritarrek* jendartearen pilaturik dauden eskaera anitzen artikulazio ekibalentzialaren bidez identitate global bat sortu duela esan dezakegu (Laclau, 2005:110).

Segurtasuna, burujabetza, immigrazioaren kontrola, dirua aurrezte, efi- zientzia handiagoa eta burokrazia txikiagoa izan ziren kanpainaren ardatzak. Guz- tien artean, *point de capiton* edo puntu nodalaren funtzioa *kontrola berreskuratzearen*⁵¹ ideia izan zen. Eskumako soberanismoaren oinarritzat jo de- zakegu eta sistemarekiko kritika eta asegabe zeuden hainbat eskaera konekta- tzeko gaitasuna izan zuen. Urteetako burujabetza galeraren ondorioz, Europar Batasuna, elite politikoa eta finantzaria eta immigrazioa kanpo eratzaila moduan finkatuz eta lurraldearen gaineko kontrolaren berreskurapena puntu nodal moduan erabilita, *statu quoaren* aurka zeuden sektore ezberdinak era ekibalentzian artikulatu zituzten (Laclau, 2005). Argigarriak dira zentzu horretan Lanchesterren hi- tzak:

“Presentar argumentos económicos a votantes que se sienten oprimidos por la economía es arriesgado: es bastante probable que te manden a la mierda. Eso es lo que hizo el elec- torado a la casi cómica cabalgata de sabios y peces gordos que se tomaron la molestia de explicar que el Brexit sería una locura ruinosa: Obama, Lagarde, Carney, el FMI, la OCDE, el Banco Central Europeo y cada comentarista y analista que se te ocurra. El con- traargumento no era en realidad un argumento sino un llamamiento muy hábil a la emo- ción, a la idea de que el Reino Unido debía “recuperar el control” (2016:7).”

Brexita beraz, demokraziaren pribatizazioaren ondorioz eta Britainiar krisi or- ganikoaren testuinguruan ulertu behar den eskumako populismo soberanistaren eredu argia da. Gure aburuz, antzeko oinarri eta logikak jarraituz baina eduki poli- tiko antagonikoetan oinarriturik Eskoziako independentismoak populismo aurrera- koia eskaintzen digu.

4.2. Independentzia erreferenduma Eskozian: hegemonia eta artikulazio populista aurrerakoa

1980. hamarkadatik aurrera mundu mailan jazotako aldaketen ondorioz, demo- kraziaren pribatizazio prozesu orokor bat egoteaz gain deszentralizazio prozesuen bidez naziorik gabeko Estatu kontsideratu diren horiek estatu egitura propioak es- kuratu dituzte. Hori dela eta, Eskozia, Katalunia edo Euskal Herria bezalako he- rrietan nazioak era demokratikoa birsortu dira eta eskaera nazionalisten inguruan momentura arte izandako ikuspegia aldatu da (Azkune, 2018; Goikoetxea, 2017). Nazioaren ulerkeria historikoaren orde, bere burua demokratikoki gobernatu nahi duen *demosaren* ideia nagusitu da eta burujabetza eskaerek oinarri demokratikoa

51. Take back control.

hobetsi dute: hezkuntza sistema publikoaren defentsa, osasun zerbitzu publikoen defentsa, baliabide naturalen kudeaketa, azpiegitura propioen kudeaketa etab. Eskozian joera hau 80. hamarkadatik Thatcherismoaren aurkako borrokan hasi arren, devolution prozesuaren ondorioz eta batez ere independentzia erreferendumaren testuinguruan areagotu egin zen.

Estatu egituren deszentralizazioaren bidez, Eskoziako Legebiltzar eta Gobernuak eratu ziren eta arlo ekonomikoan, sozialean eta kulturean eskumen ugari lortu zituzten. Gobernu zentralak erreserbatutako politikak eta Eskoziak eskuratu-takoak hurrengo taula ikus ditzakegu:

13. irudia. Devolution eta itzulitako eskumenak

Policy areas reserved	Policy areas devolved
International relations	Health
Defence, national security	Education and training
Fiscal and monetary policy	Economic development
Immigration and nationality	Local government
Drugs and firearms	Law and home affairs
Regulations of elections	Police and prisons
Employment	Fire and ambulance services
Company law	Social work
Consumer protection	Housing and planning
Social security	Transport
Regulation of professions: The civil service	Environment
Energy, nuclear safety	Agriculture
Air transport, road safety	Fisheries
Gambling	Forestry
Equality	Sport
Human reproductive rights	The arts
Broadcasting, copyrigh	Devolved research, statistics

Iturria: Cairney, 2014

Osasuna, hezkuntza, etxebizitza edo garapen ekonomikoa bezalako esku-menak, Britainiar ereditutik harago doan eskoziar demokratizazio propioa garatzeko baliatu dituzte (Azkune, 2018). Beste edozein naziok erabilitako mekanismoak baliatu eskoziar nazioa era demokratikoan birsortu da eskoziar *demos*a sortuz eta eskaera nazionalista klasikoen edukia moldatuz (Goikoetxea, 2017). Horretaz gain, Britainiartasuna geroz eta gehiago balio kontserbadoreekin lotu den bitartean, identitate eskoziarra ongizate estatuaren defentsarekin eta balio sozialdemokratekin lotu da (McEwen, 2006:137). Horrek, guztiz baldintzatu ditu burujabetza eskaerak eta hauen inguruan egin diren artikulazio diskurtsiboak. Zentzu horretan argi-garriak dira Scott and Wrighten adierazpenak:

“[...] overall reductions in welfare are hardly likely in Scotland, Scottish policy in areas such as health, higher education and social care has consistently demonstrated a commitment by Scottish politicians to respond to what they identify as Scottish needs, maintain the idea of a socially democratic society and provide proof to Scottish voters that devolved administrations could make a difference” (2012:441).

Ongizate estatuaren defentsa eskoziar nazioaren defentsarekin lotu da, eta Britainiar politikak neoliberalizat jo dituzten bitartean eskoziar politika publikoak eskoziarren arazoei erantzuteko gaitasuna duten bakarrik direla argudiatu dute ‘Scottish solutions to Scottish problems’ leloaren bidez (Law eta Money, 2012:163). Joera hau urteetan mantendu den arren, SNP-k gobernua eskuratzean areagotu egin zen, erreferendumaren kanpaina izanik bere adibiderik argiena. Hori aintzat harturik, lehia politikoaren kokapen labur bat egitea beharrezkoa da.

Devolution osteko lehen hamarkadan (1997-2007) Laborismoa zen nagusi eremu guztietan eta urteetako joera jarraituz hauteskunderen hauteskunde lehen indarra izaten jarraitu zuen. SNP bestalde bigarren indar moduan egonkoritu zen baina urteetako eztabaida eta barne zatiketaren ostean independentzia lortzeko estrategia bateratu bat adostea lortu zuen. Alde batetik eremu ezberdinetan independentziaren aldeko ikerketa eta argudio politikoak lantzea sustatu zuten. Horien artean Alex Salmond-en lehen tasun nagusia *The Economic Case for Independence* deiturikoa zen, hau da, independentziaren aldeko argudio ekonomikoaren lanketa. Bestetik, independentzia lortzeko hipotesi estratagikoen inguruko adostasuna lortu zuten. Helburua Eskoziar Parlamentuko hauteskundeak irabazi eta horren ostean independentzia erreferendum bat deitzea zen. Autogobernuarekin batera ezkerreko indar independentista berriak agertu ziren arren, Scottish Socialist Party eta Green Party izanik garrantzitsuenak, euren indarra oso mugatua zen SNP-rekin alderatuta.

Devolution prozesuan hauteskunde sistema diseinatu zutenean, gehiengo absolutuak ekiditea eta laboristen indarra mantentzea zen xedea. Hala ere, 2007. urtean SNP-k irabazi zituen hauteskundeak gehiengo sinplea lortuz. Lehenengo gobernu independentistak ez zuen erreferenduma lortzeko babes nahikorik jaso eta eskoziarren nahi eta beharretan oinarritutako politika sozialak aurrera eramateko Londresetik inposatutako mugak etengabe salatu zituzten. Testuinguru horretan (2007-2011) ezinbestekoak diren lau prozesu nabarmendu behar dira:

1. Azken hamarkadetako neoliberalismoaren ondorioz mundu mailan meta-tutako kontraesanen eztanda. Horien artean aipatu behar da demokraziaren pribatizazioak erabaki publikoak esku pribatuetan utzi dituela Europar Batasuna izanik honen adierazle argienetakoa (Goikoetxea, 2018) eta horrekin batera demokrazia liberal gehienen estatismo autoritariorako joera nabarmena (Poulantzas, 1978).
2. Aurrekoarekin loturik Britainiar Estatuaren eta botere blokearen krisia. Aurreko atalean ikusi dugun moduan, honek ordezkari krisia, alderdiekiko desafekzioa, lurralde antolaketaren krisia, zilegitasun krisia eta hegemonia krisi sakona eragin du. Honen lehenengo adierazle politikoa Laboristen hauteskunde porrota eta Kontserbadoreen garaipena izan zen. Hala ere, Britainiar estatuaren krisi organikoak sustrai ekonomiko eta politiko sakonak ditu eta Brexitarekin areagotu besterik ez dira egin (Jesop, 2016).
3. Eskoziako botere blokearen krisia. Hamarkadetan botere blokearen ordezkari izan zen Alderdi Laboristaren hauteskunde porrotak, sakoneko egiturazko hainbat arazoren adierazlea besterik ez da (Hassan & Shaw, 2012).
4. Eskoziako independentistak, eskoziar proiektu nazionalaren ordezkari moduan aurretiaz laboristek zuten rola ordezkatzear gain, jendartearen gehiengoarentzat britainiar establishment neoliberalaren aurkako tresna eraginkorrena bihurtu ziren. Gobernua lortu zutenetik gaur egun arte SNP-ren diskurtso politikoaren oinarria hurrengoa izan da: eskoziar egitura politikoak, "eskoziarren intereserako" politika publiko ezberdinak garatzeko ezinbesteko tresna izateaz gain, Britainiar Gobernua interes horien aurkako jarrera etengabea mantendu du.


Dimentsio horiek kontuan hartuta 2011ko hauteskundeetan SNP-k inork espero ez zuen gehiengo absolutua lortu zuen. Hala ere, prozesu orok geldieneak eta jauziak ditu eta ezin dugu ulertu independentisten indartzea urteetako indar metaketa pasiboaren ondorio soil moduan. Hau da, ez zituzten soilik urteetan zehar pixkanaka indarrak metatu eta momentu batean independentistak inkestetan gehiengoa izatera heltzean erreferenduma deitu. Momentuko erabaki eta jarduera estrategikoen bidez independentziaren aldeko jauzi kualitatiboak ematea eragin zuten, erreferenduma bera izanik horren aldeko tresna nagusia. Ikus dezagun zehazki zer gertatu zen.

2011ko hauteskundeak gehiengo osoz irabazi ostean, Eskoziako Gobernuak independentzia erreferendumaren baldintzak negoziatu zituen Britainiar Gobernuarekin. Kataluniako prozesuarekin alderatuta, ez zen behetik gora alde aurretiko aktibazio sozial indartsu baten ondorioa, elite politikoez gidatutako goitik behariko logika baitzuen. Erreferenduma ez zen momentuan herritarren agendan lehentasun nagusia eta hasiera batean gune militanteenetik harago ez zuen pasio politiko handirik pizten. Are gehiago, independentziaren babes baxua kontuan hartuta (ez zen %30era heltzen) Alex Salmondrek independentzia Bai/Ez aukeraz gain eskoziarren gehiengoak babesten zuen *devolution-max* aukera proposatu zuen, hiru erantzuneko galdeketa sustatuz (Sanjaume, 2015:360-361). David Ca-

meronek aukera hori errefusatu zuen Bai/Ez galdera proposatuz. Bere ikuspegitik ezezkoak erraz irabazi eta eskoziar afera urte luzez ixteko aukera paregabea zen.

Kontrara, hurrengo grafikoan ikusi daitekeen moduan baiezkoaren aldeko babesaren erreferendum kanpainan zehar independentisten jardueraren ondorioz igo zen.

14. irudia. Eskoziar independentziaren aldeko babesaren garapena 1978-2016



Iturria: Ipsos Mori, 2016

Erreferendumak *denbora huts eta homogeoarekin* hautsi zuen, hausturarik eta krisirik ez duen denbora ez-politikoarekin (Bensaïd, 2013:35), denbora estrategikoari ateak zabalduz. Bensaïden hitzak zuzenean hartuz:

“El tiempo estratégico es precisamente un tiempo roto, “kairótico”, marcado por instantes propicios y oportunidad que hay que atrapar; todo lo contrario de una duración uniforme, homogénea y vacía” (Bensaïd, 2013:54)

Antzeko logika batean Zubiagaren hitzak jasoko ditugu:

“El acontecimiento, el momento democrático no sólo es imprevisible para sus promotores, sino que su propia aparición inesperada crea la necesaria inquietud en la lógica institucional/sedimentada como para que las puertas del cambio social y político se entreabran” (Zubiaga, 2012: 128).

Arestian aipatu moduan krisi egoerak, gertakari politikoak, momentu demokratikoak sorturiko ezegonkortasunak, artikulazio populista bat burutzeko momentu pribilegiatuak dira. Brexit-ean ikus bezala, Eskoziar kasuan ere artikulazio populistak⁵² galdatzen dituen baldintzak ikus ditzakegu,

52. Ikus Brexitaren atalean Laclaren populismoaren teoriari buruz esandakoa.

- Yes/No galderak jendartea bi eremutan era dikotomiko batean banatzea eragiten du. Hiru erantzuneko erreferendumak aldiz (Bai/Ez/Devolution max), haustura horri ateak itxiko zizkiokeen jendartearen gehiengoak *Devolution max* aukerara bideratuz inolako banaketarik gabe.
- Jendartearen gehiengoak arestian aipatu bezala, *Devolution-max* hobesten zuen, eta horren ondorioz, ez zegoen ez polarizaziorik, ez pasiorik ezta galdeketa-erikiko interes handirik ere ez. Kontrara, Yes/No galderak polarizazio antagoniko bat eragin zuten muturreko posizioak urrunduz eta erdian zeudenak poloen alde batera edo bestera aukeratzera behartuz.
- Erreferendumaren inguruko kanpaina eta eztabaidek prozesu konstituzio-gilearen forma hartu zuten. Horren bidez, eta YES Campaing eta Radical Independencen jarduerari esker, banaturik zeuden eremu eta eskaerak elkartu ziren (artekaritza maila handia egon zen). Kontuan hartu behar dugu baiezkoaren aldeko kanpainak *grassroot* edo kale mailako gizarte mugimendu izaera hartu zuela, ezezkoaren kanpainak goi mailako izaera elitista mantendu zuen bitartean. Horren bidez *eremu herritarrak* jendartean pitaturik zeuden eskaera anitzen artikulazio ekibalentzialaren bidez identitate global bat sortu zuen (Laclau, 2005:110).

Kanpainaren edukiak orain arte “sozialak” kontsideratu diren gaiak bete zuten. Besteak beste, ongizate zerbitzuen defentsa, kalitatezko enplegua, demokrazia moderno baten eraikuntza, feminismoa, ekologismoa, antimilitarismoa edota garapen ekonomikoa bezalako eskaerak izan ziren ardatz nagusiak. Guztien artean, point de capiton edo puntu nodalaren funtzioa Yes edo independentziaren ideia izan zen, urte luzez defendatutako *Scottish solutions to Scottish problems* leloaren adierazle berria bihurtuz. Soberanismo aurrerakoia oinarri bilakatu zen eta sistemarekiko kritika eta asegabe zeuden hainbat eskaera konektatzeko gaitasuna izan zuen. Westminsterreko elite politiko kontserbadorea kanpo eratzaille (etsai) moduan finkatuz eta independentziaren aldeko jarrera puntu nodal moduan erabilia, *statu quoaren* aurka zeuden sektore ezberdinak era ekibalentzian artikulatu zituzten (Laclau, 2005).

Erreferenduma galdu arren, independentziaren aldeko babesak 20 puntu igotzea lortu zuten alde aurretik inork espero ez zuen gertakaria eraginez. SNP-ren lidergopean, baina beste hainbat sektore anitzen babesarekin (ezker independentista tartean), independentismoak austeritatearen aurkako borroka ordezkatzeko lortu du bere metafora bihurtuz. Uste dugu George Kerevanek erreferendumaren ostean egindako irakurketak neurri handi batean azaldutakoa laburtzen duela:

The Scottish Labour leadership, abetted by the metropolitan media, wrongly tarred proponents of independence as tartan romantics – or even anti-English bigots. The reality is that, by the end, the Yes campaign had morphed into the beginnings of a genuine populist, anti-austerity movement like the “Indignant Citizens” in Greece or the May 15 Movement in Spain. Put another way, it was class politics – not old-style nationalism – that fired the Yes campaign. (Kerevan, 2014ko irailak 19).

5. Ondorioak: Disunited Kingdom?

1807ko Maiatzaren 1ean Eskozia eta Ingalaterraren arteko Batasun Tratatuaren lehen mendeurrena handitasunez ospatu zuten Ediburgon. Napoleonen Frantziaren aurkako gudaren erdian Britainiartasuna bere goreneko unean zegoen eta Eskozia prozesu horren aktore garrantzitsua zen. 1907an ere bigarren mendeurrena ospatu zuten era argian adieraziz Batasuna Eskoziar identitatearekin bukatu ordez berau mantentzeko ezinbesteko tresna izan zela (Keating, 2009:17). 2007. urtean ez zen inolako ospakizunik egon, independentistek ez zuten ospatzeko arrazoirik eta unionistek ez zuten honen babeserako argudio indartsurik (idem).

Mendeetan zehar banaezina zirudien batasunak sakoneko arrakalak dituela agerikoa da eta mundu mailako Finantza Krisiaren ondoren bere kontraesanak areagotu besterik ez dira egin. Gure aburuz, *a priori* antagonikoak diruditen Brexita eta eskoziar independentismoaren loraldia, krisi sakon horren sintoma agerikoenak dira. Hala ere, fenomeno hauen inguruko ikerketa gehienek, erreferendumen bootoen motibazioan eragin duten aldagaiak hartu dituzte oinarri (Kowalski, 2018; McGowan, 2018; Mindus, 2017). Orokorrean, herritarrek zergatik bozkatu duten alde edo kontra eta euren erabakiek etorkizunean izango duten eragina izan da erantzun nahi izan dituzten galdera nagusiak.

Ikerketa horien markoa gainditu eta azterketa sakonagoa egitea izan da gure xedea. Ikuspegi kritiko batetik ezinbestekoa da gatazken erroa aztertuz banaturik dauden prozesuak elkartu eta irudi osoago bat eskaintzea (Cox, 1981). Hori izan da lan honen funtsa. Mundu mailako joeren baitan azken hamarkadetan jazo diren egiturazko aldaketek garrantzia berezia izan dute. Hala ere, hauek ezin dira hustasun unibertsal baten baitan isolatu, aktoreen jarduera estrategikoarekin etengabeko harremanean baizik (Jessop, 2015). Egitura eta agentzia era dialektikoan ulertzen baditugu ere, momentuaren arabera batek besteak baino pisu handiagoa izan dezake. Zentzu horretan, krisi garaietan aktoreen jarduerak garrantzia berezia izan dezakete eta egonkortasun testuinguruetan egiturazko mugak nagusitzea errazagoa izango da. Gure ikerketan elkarturik aurkeztu ditugun arren, ondorio nagusi hauetan bi aldagai hauek banatuko ditugu gure argudioak era argiagoan azaltzeko.

Gure artikuluan, ***lehenik eta behin egiturazko aldaketan garrantzia azpimarratu nahi izan dugu***. Gertakari politikoak aktoreek hartutako erabaki batzuen ondorioetara mugatzen ez diren neurrian, urte luzez egonkortutako joerak aintzat hartzea ezinbestekoa da. Ikusi dugun moduan, Erresuma Batuan azken 40 urteek berebiziko garrantzia izan dute. Testuinguru horretan, Mendebaldeko hainbat herrialdeetan kontraesankorrek diren bi fenomenoren garrantzia azpimarratu nahi izan dugu: ***demokraziaren pribatizatorako joera eta nazio historikoak era demokratikoan birsortzea ahalbidetu duten estatu egituren deszentralizazioa***. Biak ala biak, fenomeno global eta lokalak dira aldi berean, beraz, gure lanaren xedea britainiar eta eskoziar berezitasunak lantzea izan den arren, Europako hainbat herrialdeetan antzeko fenomenoak jazo direla azpimarratzea beharrezkoa da⁵³.

53. Ideia honen inguruan sakontzeko ikus: Azkune, 2018 eta Goikoetxea, 2017.

Ikusi dugun moduan, 1980. hamarkadatik aurrera, Thatcherrek **demokraziaren pribatizazioan** eta estatismo autoritariorako joeran jauzi kualitatibo bat ezarri zuen, hurrengo hamarkadak baldintzatu dituen momentu egituratzailea ezarri. Honen epe luzeko gabeziak, 2008. urteko finantza krisiaren testuinguruan agerian geratu ziren. Demokrazia pribatizatzen denean, burujabetza galdu egiten da, eta horrekin batera, era obedientzian jarduteko gaitasuna ere bai. Honek -beste hainbat kontraesanekin batera teilkatzean- krisi organikoa eragin dezake. Egoera hauetan, Estatuaren boterea demokrazia liberalaren kaltetan indartzen da hegemonia burgesa mantentzeko ahalmena ahulduz (Poulantzas, 1979:296-303), estatuaren krisi dimentsioak areagotuz eta batasun nazionala mantentzeko gaitasuna murriztuz (Jessop, 1985:99). Gramsciren definizio klasikora hurbilduz “mundu zaharra hiltzen ari da eta berria ezin da jaio. Eta ilunbe horretan sortzen dira munstroak”. Testuinguru hauetan, norabide oso ezberdinak har ditzaketen prozesuak azaleratzen dira, baina alde aurretiko deskalifikazio eta sailkapen sinplifikatzaileez harago ‘munstro’ hauen konplexutasuna sakontasunez aztertzea ezinbestekoa da. Lan hori burutzean, gure egitura politikoak azaltzeko ezinbestekoak diren kategoria ontologikoak lehen lerroa bueltatzen dira: kapitala, estatua, burujabetza, demokrazia eta nazioa.

Alde batetik, Brexitaren egiturazko oinarriak azaltzeko baliatu ditugu. Brexita, burujabetza galera baten eta desdemokratizazio prozesu baten ondorioa dela esan dugun arren, berau plano zehatzago batean ulertzeko Estatuaren krisi dimentsioak aztertzea beharrezkoa izan da. Bestetik, kategoria hauek dira, hain zuzen ere, Eskoziako independentismoaren loraldia azaltzeko ezinbestekoak direnak. Devolution prozesuaren ondorioz, Britainiar Estatuaren baitan eskala politiko berri bat egituratu da eskoziar komunitate politiko berri baten egonkortzea ahalbidetuz. **Demokratizazio prozesu propioa** garatu den neurrian, eskala zaharberritu hau herritar askorentzat erreferentzia politiko nagusi bihurtu da (Azkune, 2018). Ikusi dugun moduan, beste edozein naziok erabilitako mekanismoak baliatuz eskoziar nazioa era demokratikoan birstutu da eskoziar demosa sortuz eta eskaera nazionalista klasikoen edukia moldatuz (Goikoetxea, 2017). Bere burua era demokratikoan gobernatzeko duen komunitate politikoa da demosa, eta gaur egun, hau ez da posible naziorik ez badago. Demosa nazioarekin teilkatzen da, beraz, bata eta bestea ezin dira banaturik ulertu.

Horren ondorioz, egungo burujabetza eskaeren gakoa ez da ezberdina den kultura baten akomodazioa baizik eta eskoziar demokratizazioa garatzeko eskala eta egitura politiko egokienak zeintzuk diren adostea. Independentzia erreferendumaren kanpainan orain arte sozialtzat jotzen ziren gaiak izan ziren eztabaidagai nagusiak⁵⁴: finantza sistema eta ekonomia, osasun sistema publikoa eta ongizate zerbitzuen kudeaketa, hezkuntza eta enplegua, ingurugiroa eta energiaren kudeaketa, feminismoa, demokraziaren garapena etab. Eskoziako independentisten diskurtsoaren arabera, Estatu propioa ez da *per se* helburu politiko bat, ongizate

54. Honen adibide ezagunena Eskoziar Gobernuak erreferendumaren kanpainan argitaratu lana da: “Scotland’s Future. Your Guide To An Independent Scotland”. On-line eskuragarri: <https://www2.gov.scot/resource/0043/00439021.pdf> (Kontsulta eguna: 2019/12/26).

estatua garatzeko eta jendarte justuagoa eraikitzeke ezinbestekoa den tresna baizik. Hori dela eta, praktikan ezin dira ezberdindu nazionalistak diren argudioak edo demokratiko eta sozialak diren argudioak, biak ala biak elkarrekin agertzen baitira.

Horretaz gain, Thatcherismoaren eraginez, britainiar identitatearen eraikuntzan gerra osteko *one nation strategy* baztertu eta *two nation* proiektu hegemonikoa sustatu da. Honek, Eskozia britainiartasun sentimendu horretan geroz eta gutxiago identifikatzea eragin du. Gaur egungo hegemonia krisia horren ondorio zuzena da. Britainiartasuna geroz eta gehiago balio kontserbadoreekin lotu den bitartean, identitate eskoziarra ongizate estatuaren defentsarekin eta balio sozial-demokratekin lotu da (McEwen, 2006:137). Honek, guztiz baldintzatu ditu burujabetza eskaerak eta hauen inguruan egin diren artikulazio diskurtsiboak.

Logika horretan ulertu beharra dago azpimarratu nahi dugun bigarren aldagaia: **aktoreen jarduera estrategikoa**. Aldaketa politikoak ez dira alde aurretik mugatutako baldintza batzuen ondorioa. Muga horien baitan, aktoreek aurrera daramaten jarduera estrategikoaren ondorioa baizik. Arestian aipatu moduan, krisi testuinguruek aurreko momentu egituratzailearen haustura eta *momentu koituntural* berri batean zabalera eragin dezakete (Jessop, 1982:253), ekintza politikolari aukeren espirala zabalduz (McAdam, Tarrow, Tilly, 2001:181-186). Besteak beste, errealitatearen inguruko irakurketa diskurtsiboa eta honen bidez eraikitzen den proiektu hegemonikoa azpimarratu dugu. Honen baitan, garrantzia berezia izan du populismoaren inguruko hausnarketa. Hau ez da ideologia bat, politikotazuna artikulatzeko logika politiko bat baizik (Laclau, 2005). Hori dela eta, populismoaren kategoria analitikoaren bidez oso ezberdinak diren proiektu politikoak azter daitezke. Gure kasuan, brexita eta eskoziar independentismoaren azterketa egiteko baliatu ditugu, baina beste hainbat fenomeno aztertzeko baliagarria da. Kasu honetan, bi prozesuek burujabetzaren ideia baliatzen dute puntu nodal gisa antagonikoak diren proiektuak artikulatzeko: kontserbadorea bata, aurrerakoia bestea.

Azterketan ikusi bezala, burujabetza galera baten ondorioz *take back control* aldarriak eskuin muturreko soberanismoa artikulatzeko gaitasuna izan zuen. Demokraziaren pribatizazioaren ondorioz kalteturiko hainbat talde sozialek, elite kontserbadorearen sektore batek proposatu artikulazioarekin bat egin zuten. Ezkerreko ikuspegitik, Jeremy Corbynen lidergoepen gizarte mugimendu izaera hartu duen Laborismo berriak, *for the many not the few* leloepen establishmentaren aurkako banaketa dikotomikoaren bidez artikulazio arrakastatsua egin du, *New Labour*ren marka alde batera utzi eta alderdia logika globalen sintonian kokatuz (Del Amo, 2017:79). Hala ere, 2019ko abenduaren 12an ospatu Hauteskunde Orokorrek lehenengo operazioaren nagusitasun agerian utzi zuten.

Independentismoaren arrakastak, bestalde, politikaren izaera kontingentea agerian uzten du. Eskozia, Alderdi Laboristaren gotorlekua izateaz gain, independentismoa bazterreko aukera politikoa izan da. 2007. urtetik aurrera SNP indartu arren, 2013. urtera arte independentziaren aldeko babesa bere ehuneko historikoetan mantendu zen (%30etik behera). Egonkorra eta aldaezina zirudien egoera urte gutxitan zeharo aldatu da: SNP da Eskoziako alderdi nagusia eta independentziaren aldeko babesa maximo historikoetan dago. Erreferendumaren deialdia eta horren ostean independentziaren aldeko mugimenduak aurrera eramandako jarduera estrategikoa da arrakasta horren gakoa. Besteak beste, gure lanean ikusi

moduan, ase gabe zeuden eskari sozial ugari Estatu propioa lortzearen ideiarekin artikulatzeko gaitasuna azpimarratu beharra dago. Logika populistaren azterketan ikusi dugun moduan, independentzia puntu nodal moduan erabilia, momentura arte banaturik zeuden sektore sozial ezberdinak *statu quoaren* aurka era arrakastatsuan artikulatzeko gaitasuna izan dute. 2019ko abenduaren 12an ospatu hauteskundeek ere, operazio honek proiektu hegemoniko berri bat artikulatzeko erakutsitako gaitasuna agerian utzi zuten.

Lurralde antolaketaren krisiak beraz, Irlandar independentziaz geroztik lehen aldiz Batasuna kolokan jarri dezake. Ingalaterrak ahots handiagoa nahi du eta kontrara Eskoziak eta Galesek (azken honek neurri txikiago batean) ez dute euren burua ordezkaturik sentitzen. Brexitek aurreko tentsioak areagotu egin ditu. Ingalaterraren botoek azken emaitza baldintzatu dute eta honek Eskoziari bigarren independentzia erreferendum bati ateak ireki dizkio. 2014ko erreferendumean independentzia galtzaile izan bazen ere, horren osteko testuinguru politikoak epe motzeko aukera posible moduan mantendu dute. Zentzu horretan, Hauteskunde Orokorren emaitzak aintzat hartuta, 2019ko abenduaren 19an, Eskoziako Lehen Ministra den Nicola Sturgeonek, bigarren erreferendum bat ospatzeko eskumenak eskatu zizkion Westminsterri. Testu honen azken idazketa garatzen zegoen bitartean⁵⁵, Londresek bigarren erreferendum bat egitea ukatu egin du, gatazka politikoa eta polarizazioa sakonduz. Aurreikustea ezinezkoa bada ere, 2020. urtean zehar bigarren erreferendum bat egiteko aukerak geroz eta handiagoak dira. Irlandan bestalde, Brexitarren ondorioz Iparaldea eta Hegoaldearen arteko muga berrezarri daiteke batasunari buruzko erreferendum bati ateak irekiz. Politika geroz eta azkarragoa den garaiotan ezinezkoa da aurreikuspenik egitea baina badirudi urteetako dinamika politikoaren ondorioz, banaezina zirudien Batasun indartsutik, *Disunited Kingdom* metafora nagusitzen ari dela.

55. 2019ko abendua.

6. BIBLIOGRAFIA

- AZKUNE, Jon. "Democracia, soberanía y populismo en la Unión Europea: la emergencia de la izquierda independentista escocesa", In: *Clivatge*, 4 zenb, 2016, 31-60.
- . "Laclau eta Mouffe Eskoziar" In: Aoiz. et.al. *Hegemonía, artikulazioa eta populismoa: Laclaren ekarpenak eta Euskal Herria*, Donostia: Iratzar Fundazioa, 2017; 87-105. [Kontsulta, 2019/10/02] Hemen eskuragarri: http://iratzar.eus/images/dokumentuak/Inspirazioak/hegemonia_artikulazioa_eta_populismoa_laclaren_ekarpenak_eta_euskal_herria.pdf
- . *Can the subaltern states speak? Estatuaren eraldaketa eta burujabetza eskaerak Katalunian, Euskal Herrian eta Eskoziar*, Leioa: Doktorego Tesia, 2018. [Kontsulta, 2019/10/02] Hemen eskuragarri: <https://addi.ehu.es/handle/10810/28966>
- BENSAÏD, Daniel. *La política como arte estratégico*. Madril: La Oveja Roja; 2013.
- BRYANT, Christopher. *The nations of Britain*, Oxford: Oxford University Press, 2006.
- CAIRNEY, Paul. "The territorialisation of Interest Representation in Scotland: Did Devolution Produce a New form of Group-Government Relations?". M. Keating (ed) "Rescaling of interests (Special Issue)" In: *Territory, Politics Governance*, Vol2:3, 2014; 303-321.
- COLANTONE, Italo; STANIG Piero. "Global Competition and Brexit". In: *American Political Science Review*, 112 zenb, 2018; 201-218.
- COLLEY, Linda. *Britons. Forging the Nation 1707-1837*, London: Pimlico, 2003.
- COLLS, Robert. *Identity of England*, Oxford: Oxford University Press, 2002.
- COX, Robert. "Social forces, States and World Orders: Beyond International Relations Theory". In: *Millennium - Journal of International Studies*, 10 zenb, 1981; 126-155.
- DEL AMO, Ion Andoni. "El retorno del pueblo". In: DÍAZ Cano, Eduardo eta BARBEITO IGLESIAS, Roberto. *XV Premio de Ensayo Breve en Ciencias Sociales "Fermín Caballero"*. Toledo: ACMS, 2017, 63-85. [Kontsulta: 2019/10/02] Eskuragarri hemen: https://acmspublicaciones.revistabarataria.es/wp-content/uploads/2017/06/1.1.2.accesit.Andoni.Form_Def_web_2017.pdf
- ELAZAR, Daniel. *Exploring Federalism*, Tuscaloosa: University of Alabama Press, 1991.
- EQUALITY TRUST. "How has inequality changed? Development of UK income inequality" [Kontsulta, 2019/09/13] Eskuragarri hemen: <https://www.equalitytrust.org.uk/how-has-inequality-changed>
- GALLAS, Alexander. *The Thatcherite Offensive: a Neo-Poulantzian Analysis*, Chicago: Haymarket Books, 2016.
- FOUCAULT, Michel. *The birth of Biopolitics*, Houndsmills: Palgrave MacMillan, 2008.
- FRASER, Gary. "How Maggie killed local", In: *Scottish Left Review*, 76 zenb, May/June, 2013; 16-18.
- GRAMSCI, Antonio. *Selections from the prison notebooks of Antonio Gramsci*, London: The Electric Book Company, 1999.
- GOIKOETXEA, Jule. *Privatizing nations from Cosmopolitan ideals to Basque territories*, Oxford: Peter Lang, 2017.
- HALL, Stuart. "The great moving right show" In: *Marxism Today*, January, 1979; 14-20.
- . "Thatcherism: a new stage?" In: *Marxism Today*, February, 1980; 26-28.
- . "Gramsci and us" In: *Marxism Today*, June 1987, June: 16-22.
- . *The hard road to renewal: Thatcherism and the crisis of the left*. London: Verso Books, 1988.
- . "Thatcher's Lessons". In: *Marxism Today*, March 1988, 20-27.
- HAY, Colin. 'Narrating Crisis: The Discursive Construction of the Winter of Discontent', In: *Sociology*, 1996; 30:2, 253-277.

- . "A crisis of politics in the politics of crisis". RICHARDS, David; SMITH, Martin eta HAY Colin (Ed) *Institutional Crisis in Twenty-First Century Britain*, Basingstoke: Palgrave Macmillan, 2014; 60-78.
- HENDERSON, Alisa et. al. "England, Englishness and Brexit" In: *The Political Quarterly*, Vol. 87, 2. zenb, April-June 2016; 187-199.
- IPSOS MORI. *35 years of Scottish attitudes towards independence*, 2014, [Kontsulta: 2019/09/13] Eskuragarri: <https://www.ipsos.com/ipsos-mori/en-uk/35-years-scottish-attitudes-towards-independence>
- J. GOODWIN, Matthew; HEATH, Oliver. "The 2016 Referendum, Brexit and the Left Behind: An Aggregate level Analysis of the Result". In: *The Political Quarterly*, 87 zenb, 2016; 323-332
- JEFFERY, Charlie et al. *Taking England seriously: the new English Politics*, Edinburgh: Centre On Constitutional Change, 2016 [Kontsulta: 2019/09/13] Eskuragarri: https://www.centreonconstitutionalchange.ac.uk/sites/default/files/news/Taking%20England%20Seriously_The%20New%20English%20Politics.pdf
- JESSOP, Bob et al. "Authoritarian populism, two nations and Thatcherism" In: *New Left Review*, 1-47, September-October, 1985; 32- 60.
- JESSOP, Bob eta SUM, Ngai-Ling. *Towards a Cultural Political Economy: Putting Culture in its Place*. Cheltenham: Edward Elgan Publishing, 2013.
- JESSOP, Bob. *The Capitalist State: Marxist Theories and Methods*, Oxford: Martin Robertson, 1982.
- . "Conservative Regimes and the Transition to Post-fordism: the cases of Britain and West Germany", In Mark Gottdiener & Nicos Kpmninos (ed.) *Development and Crisis Theory Accumulation, Regulation and Spatial Restructuring*, Basingstoke: Macmillan, 1989; 261-299.
- . *State Theory: Putting Capitalist States in their Place*, Cambridge: Polity Press, 1990.
- . *The State: past, present, future*, Cambridge: Polity Press, 2015.
- . "The Organic Crisis of the British State: Putting Brexit in its Place", In: *Globalizations*, 2016; 14(1):1-9.
- KEATING, Michael. *Naciones contra el Estado: el nacionalismo de Catalunya. Quebec y Escocia*, Barcelona: Ariel Ciencia Política, 1996.
- . *The Independence of Scotland Self-government and the Shifting Politics of Union*, Oxford: Oxford University Press; 2009.
- KENNY, Michael eta GOVER, Daniel. *English votes for English Laws*, Edinburgh: Centre On Constitutional Change, 2016. [Kontsulta: 2019/09/13] Hemen eskuragarri: https://www.centreonconstitutionalchange.ac.uk/sites/default/files/papers/English%20Votes%20for%20English%20Laws_Procedure%20tte_Kenny%20%26%20Gover_Apr%202016.pdf
- KEREVAN, George. *Scottish Labour are biggest losers*, In: *The Scotsman*. Edinburgh: The Scotsman, 2014, [Kontsulta, 2019/09/13] Eskuragarri: <http://www.scotsman.com/news/george-kerevan-scottish-labour-are-biggest-losers-1-3547663>
- KOWALSKI, Arkadiusz Michał. *Brexit and the consequences for international competitiveness*, Houndsmills: Palgrave Macmillan, 2018.
- LACLAU, Ernesto. *La Razón Populista*, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica de Argentina, 2005.
- LANCHESTER, John. "Brexit Blues" In: *Letras Libres*, Septiembre, 4 zenb, 2016; 4-10.
- LAW, Alex eta MOONEY, Gerry. "Devolution in a 'Stateless Nation': Nation-building and social policy in Scotland", In: *Social Policy & Administration*, 46:2 zenb, 2012; 161-177.
- LEMKE, Thomas. "Foucault, Governmentality, and Critique", In: *Rethinking Marxism*, 2002; Vol 14, 3 zenb, 49-64.
- LETAMENDIA, Francisco. *Juego de Espejos: conflictos nacionales centro-periferia*, Madrid: Trotta, 1997.
- LOUGHLIN, John. "Asimetrías Políticas i Administratives en un Regne Unit amb Processos de Devolution". In: Requejo, Ferran eta Klaus-Jürgen, Nagel (Eds) *Descentralització, asimetrías i processos de resimetrizació a Europa*, Bartzelona: Institut d'Estudis Autònoms, 2009.

- MCALPINE, Robert; LINSDAY, Isobel eta WRAY, Ben. "Eskoziar Prozesua: lehena, oraina eta geroa", In: MCALPINE, Robert; SOLANO, Xavier eta REKONDO, Txente (Ed.) *Eskoziar Independentziara bidaiak XXI: mendeko Europan*, Donostia: Independentistak Sarea, 2013; 51-83.
- MCCRONE, David. *Understanding Scotland: the sociology of a nation*, London: Routledge, 2001.
- MCEWEN, Nicola. *Nationalism and the State: Welfare and Identity in Scotland and Quebec*. Brussels: Peter Lang, 2006.
- MCGOWAN, Lee. *Preparing for Brexit : actors, negotiations and consequences*, Houndsmills: Palgrave MacMillan, 2018.
- MITCHELL, James eta Bennie, LYNN. "Thatcherism and the Scottish Question", In: *British Elections and Parties Yearbook 1995*, London: Frank Cass, 1995; 90-104.
- MINDUS, Patricia. *European citizenship after Brexit : freedom of movement and rights of residence*, Houndsmills: Palgrave MacMillan, 2017.
- MORENO, Luis. *Eskoziar nazioa, nazioko arrazoiak eta geroa*, Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas, 1995.
- NAIRN, Tom. *The Break up of Britain*, London: Verso Books, 1977.
- NOMIS (2018). *Official Labour Market Statistics*. [Kontsulta: 2019/09/13] Eskuragarri: <https://www.nomisweb.co.uk/reports/imp/gor/2013265931/report.aspx>
- PATERSON, Lindsay. *The Autonomy of Modern Scotland*. Edinburgh: Edinburgh University Press, 1994.
- POULANTZAS, Nicos. *Fascismo y Dictadura: La III Internacional frente al fascismo*, México D.F: Siglo XXI Editores, 1971.
- . *Estado, poder y socialismo*, México D.F: Siglo XXI Editores, 1978.
- REDWOOD, John. *The death of Britain?*, London: Macmillan, 1999.
- SANJAUME-CALVET, Marc. "Independencia, dret a decidir i autogovern a Escòcia: 2012-2015." In: *Anuari del conflicte social 2014*, Bartzelona: Universitat de Barcelona, 2015.
- SCOTT, Gill eta WRIGHT, Sharon. "Devolution, social democratic visions and policy reality in Scotland". In: *Critical Social Policy*, 32 zenb, 2012: 440-453.
- ZUBIAGA, Mario, "Poder como hegemonía" In: AHEDO, Igor eta GOROSTIDI, Izaro (ed.) *Política Integral*, Iruñea: Pamiela, 2012.